



**KULTURA**  
AUZOLANEAN



**SORKUNTZA  
SOSTENGATZEKO  
SISTEMA BATERANTZ  
EUSKADIN**



**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**  
**Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco**

Vitoria-Gasteiz, 2019

---

Azterlan hau Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak enkargatu dio KARRASKAN elkarte profesionalari, zeinaren xedea kulturaren berrikuntza eta berrikuntzaren kultura sustatzea baita. Honako hauek garatu dute: Ricardo Antón (ColaBoraBora), Roberto Gómez de la Iglesia (Conexiones improbables) eta Anna Pinotti (kultura-kudeatzailea).

**Argitaraldia:** 1.a. 2019ko iraila

**Ale-kopurua:** 150

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

**Internet:** [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

**Argitaratzailea:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

**Egilea:** Ricardo Antón, Roberto Gómez de la Iglesia eta Anna Pinotti Rosa

**Koordinatzaileak:** Abal (Karraskan)

**Itzultzailea:** IZO

**Diseinua eta konposizioa:** Leming Diseño

**Argazkiak:** RGI, dokumentu nagusian, eta eranskinean aipatutako entitateak.

# AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA</b> .....	<b>2</b>
<b>2. METODOLOGIA</b> .....	<b>3</b>
<b>3. KONTZEPTU-ESPARRUA</b> .....	<b>5</b>
3.1. Begietsitako sektoreak .....	5
3.2. Balio-katea .....	6
3.3. Sorkuntza sostengatzeko erak eta aldagaiak .....	8
<b>4. ESPARRU, ERAGILE ETA PROGRAMEN TIPOLOGIA</b> .....	<b>10</b>
4.1. Sorkuntzari zuzeneko sostengu estrukturala emateko eragileak .....	12
4.2. Sorkuntza eta/edo testuinguru-sorrera sostengatzeko programak eta ekintzak dituzten eragileak .....	16
4.3. Sorkuntza sostengatzeko beste baliabide batzuk .....	22
4.4. Pertsona sortzaileak kudeaketan, aholkularitzan edo laguntzan gaitzeko eragileak edo programak .....	25
4.5. Sorkuntza sostengatzeko laguntza eta dirulaguntza publikoak Euskadin .....	27
4.6. Esparru osagarriak .....	29
■ Diziplina-prestakuntza .....	29
■ Erakusketa eta zabalkundea .....	29
■ Jaialdiak eta feriak .....	30
■ Ordezkapen kolektiboko erakundeak .....	31
■ Zerbitzu espezializatuak .....	32
<b>5. ZENBAIT ONDORIO</b> .....	<b>33</b>

# 1. SARRERA

Azterlan honen helburua da azterketa- eta ulermen-ariketa bat egitea euskal ekosistema kulturalaren zati espezifiko bati buruz: **sorkuntza profesionalari edo profesionalizazio-prozesuari berari sostengua emateko sistema**. Hau da, bereizi egiten dira sorkuntzaren sostengua eta sormen-jarduera bera. Horrela, azterlanaren arretagunea da eragileen multzo bat aztertzea, eragile horiek sostengua eskaintzen baitiete, bere baliabide eta jardueren bitartez, sorkuntzen bidez gizartean eta merkatuan esku hartzeko asmoa dutenei. Hori guztia, ezertan galarazi beste ekimen interesgarri batzuk, amateurren sostengura bideratuagoak, zenbait alditan biek bat egin baitezakete.

Azterketa egin zaio sostengu-funtzio horietan diharduten eragileen multzo askotarikoari, denetariko tipologiak baitituzte, eta zenbait alderdi hartu dira kontuan: dimentsioa, kokapena, ibilbidea, izaera publiko edo pribatua, eskaintzen duten laguntza edo sostengu mota, zerbitzu-katalogoa – askotarikoa edo espezifikoa –, diziplinari edo diziplinaz haraindikoari eskaintzen dioten arreta, etab. Eta hurbilketa zehatzagoa planteatzen da agente batzuekiko: azterlan honetan ezarritako kontzeptu-esparruari dagokionez, **balio-ekarpen zehatzagoa egiten dutela edo sorkuntzaren sostenguan eragin handiagoa dutela irizten zaien eragileekiko**. Beste eragile-kategoria batzuk ere definitzen dira, agian eragin txikiagoa dutenak, hain artikulatuak ez daudenak edo txosten honetan sorkuntza sostengatzeko lehentasunezko irizten ez zaien balio-katearen beste katebegi batzuetatik ari direnak, baina funtsezkoak, hala ere, ekosistema emankortzeko, testuingurua

artikulatzeko, harremanak koipeztaturik mantentzeko edo garapen-bide berriak irekitzeko.

Edonola ere, esan behar da kontua ez dela eragileen zerrenda amaigabe bat egitea (jakina, egongo dira azterketa honetatik kanpo geratu diren batzuk, baina ez dira horregatik garrantzi gutxiagokoak), **baizik eta tipologiaren berri ematea, erreferentziako adibideen bitartez**, sorkuntza sostengatuko duen ekosistemaren ezaugarritze orokor bat egiteko, eta indarguneak, gabeziak, indartu beharreko erlazioak, ekin beharreko aukera-espazioak edota funtsezko beste katebegi batzuk erakusteko xedez.

## 2. METODOLOGIA

Lan hau egiteko, lehenik eta behin, aldez aurreko beste ikerlan eta mapa-egite batzuk aztertu dira, gero kontzeptu-esparru bat proposatzeko, eta, handik abiatuta, tipologia jakin bat elaboratzeko, barnean hartuta eremu, eragile eta programen kategorizazio bat, Euskadiko Sorkuntza Sostengatzeko Sistemaren izaera ulertzen lagunduko duena.

Aldez aurreko azterlan horiek izan dira:

- **Europar Batasuneko Sorkuntza Fabriken Direktoria**, 2011n Consonnik zuzendu zuena Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailerako, zeuden tipologiaren aniztasuna erakusteko eta haien ezaugarri giltzarriak aztertzeke helburuarekin.
- **Sorguneen mapa (2016)**, Kulturaren Euskal Behatokiak egindako txosten bat da, zeinak, batik bat, Sorkuntza Fabrikatzat har daitezkeenei buruzko hurbilketa guztiz sintetiko bat egiten baitu.
- **Kultura- eta sormen-industriak: ikuspegiak, adierazleak eta kasuak**, 2017an Sinnergia Social Innovation erakundeak (UPV/EHU) argitaratu zuena eta, beste batzuen artean, INNOCREA2 proiektuaren esparruan garatutako «Euskadiko kultura eta sormen industriaren

mapa» txostenaren emaitzak jasotzen dituena.

- **KULTURASISTEMA. Kultura eta sormen ekosistemak interpretatu eta mapan kokatzeko matrize hau** Ricardo Antón Troyasek eta Roberto Gómez de la Igleziak garatu zuten 2017an, KARRASKAN elkartetik (bigarren argitalpena 2019ko ekainean). Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak finantzatu zuten, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-aldundien, Kultura Ministerioaren eta Getxoko Udalaren laguntzak tarteko zirela. Eta KULTURASISTEMAren esparruan, kontraste-txostena, Irazu Guíjarro Plazak koordinatua eta 326 eragileren datuak jasotzen dituena.
- **Sorkuntzara bideratutako esperientzia eta ekipamenduen beste analisi konparatibo batzuk**, bai ColaBoraBora

## 2. METODOLOGIA

eta bai Conexiones improbables elkarteek eginak, azken urteotan egindako hainbat aholkularitza-lanen esparruan (Pasaia, Errenteria...), eta aholkularitza enpresekin zerikusia duen intereseko bibliografia (*Kulturtopías: Imaginarios para las Culturas Comunitarias, El Futuro de los Centros Culturales en la Europa Creativa...*).

Tipologien kategorizazioarekin batera doazen eragileen zerrendak eta deskribapenak egiteko, batez ere bigarren mailako iturriak erabili dira: direktorio fisiko eta digitaletan jasotako informazioa, eragileen webguneetan eta sare sozialetan eta beste bitarteko batzuetan aurki daitekeena (Kulturklik, aurkezpeneko liburuxkak, komunikabide digitaletako albisteak, etab.). Horri guztiari gehitu behar zaio azterlan honen erredakzioan lan egin duten pertsonen euskal testuinguruari buruz duten ezagutza.



Gainera, proposamena kontrastatzeko eta osatzeko, zenbait bilera egin dira lan-prozesuak iraun duen bitartean. Ikuspuntuari buruzko lehen bilera bat egin zen, 2018ko azaroaren 22an, eta kontrasteko beste bat, 2019ko otsailaren 6an, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Kultura

Sustatzeko Zuzendaritzarekin. Bestalde, 2019ko otsailaren 26an, kontrasteko saio ireki bat egin zen sektoreko eragileekin, non 42 pertsonen hartu baitzuten parte, zerrendan jasotako esparru eta kategorizazioen barruan agertzen direnen ordezkariak, neurri handi batean.

## 3. KONTZEPTU-ESPARRUA

Lan espezifikoari ekitean, hots, eragileak, programak edo proiektuak identifikatzea, **Euskadin sorkuntza sostengatzeko sistema orekatu bat eratzeko egoera**, ezaugarriak, harremanak eta gabeziak definitze aldera, oinarritzko kontzeptu-esparru bat ezarri da, abiapuntu gisa, joko-arauak markatzeko. Muga batzuk, interpretazio desberdinetara irekiak edo gutxi-asko objektibagarriak, baina azterketa-eremua zedarrizten lagunduko dutenak.

Azterlanaren asmoa ez da, beraz, pertsona edo erakunde sortzaileen errealitate profesionala islatzea, baizik eta hainbat modutara haien sostengu diren erakunde, programa edo proiektuen berri ematea; aurrerago zehaztuko ditugu horiek guztiak. Lagunarteko hizkeran esanda, **azterlanak ez du fokua jartzen egiten dutenengan, baizik eta besteek egin dezaten laguntzen dutenengan.**

### 3.1. BEGIETSITAKO SEKTOREAK

Txosten hau, batez ere, **arteen sorkuntzaren sostenguan zentratzen** da (arte plastikoak eta bisualak, eszenikoak eta zuzenekoak, literatura, musika, ikus-entzunezkoak, media art, arte erlazionalak) eta, **neurri txikiagoan, arte aplikatuetan eta sormen-lanbideetan** (eskulangintza, diseinua, arkitektura, maker kultura), jakinaren gainean egonik ez dela erraza langak ezartzea praktika artistiko edo sormenezkoen artean, gero eta nahasiago ageri baitira bai beren artean eta bai beste

diziplina batzuekin. Gauza bera gertatzen da, jakina, eragileekin, espazioekin, programekin, proiektuekin...

Kudeaketa publiko, pribatu eta mistoko kasuak hartu dira kontuan.

Txosten honetan, albora utzi dira aurrez aipatutako sektore eta azpisektoreekin lotura duten alderdi industrialenak.

EUSKADIN  
SORKUNTZARI  
SOSTENGUA EMATEKO  
SISTEMAREN IZAERA  
ULERTZEA.



# 3. KONTZEPTU-ESPARRUA



## 3.2. BALIO-KATEA

Balio-katetzat hartzen da multzo bat, balioa eransteke etapa desberdinak hartzen dituena, zeinek, era kateatuan –ez nahitaez, elkarren segidan–, aukera ematen duten modu ziklikoan adierazteko eskaintzaren eta eskariaren arteko erlazioak behar bezala funtzionatu ahal izateko behar diren jarduerak. Nolanahi ere, **balio-katearen zein katebegiri** begiratzen zaio azterketa-eremua mugatzeko orduan? Funtsean, hiru hauetan:

### 1. 1. Esperimentazioa / Kontzeptualizazioa / Sorkuntza / Interpretazioa / I+G+b

Idea eta praktiken esplorazio-, garapen-, konbinazio- eta kontraste-prozesuak, sorkuntza berriak eratzeko xedearekin edo aurretik dauden sorkuntzak berregiteko, ezagutza berria sortzeko, arteen eta kulturaren eremu edo adierazpen bati buruzko begirada

edo jarrera berriak sortzeko, edo, azken horiek erabilita, beste esparru edo gizarte-eremu batzuetan aldaketak eta eraldaketak eragiteko.

### 2. Preprodukzioa / Prototipoak egitea

Aldez aurreko zereginak, sormen-hurbilketak eta prestaketa-prozesuak, beharrezko direnak ideia, produktu edo esperientzia kultural bat ekoizteko, gizarteratzeko edo merkaturatzeko, barnean hartuta entsegu-prozesuak (proba-errorea) eta plasmazio fisiko edo bisualerako sistemak, hurrengo faseei buruzko erabakiak orientatzeko balioko dutenak

### 3. Produkzioa / Postprodukzioa

Prozesu eta jardueren antolakuntza sistematizatua, zeinaren bidez prototipoak edo ideia formalak ezagupen edo pentsamendu-eredu, produktu, zerbitzu edo esperientzia kultural bihur

### 3. KONTZEPTU-ESPARRUA

daitezkeen, haien banaketa, komunikazio, gizarteratze edo merkaturatzearen aurretik; baita ondorengo laguntza teknikoa, eguneratzea eta jarraipena ere.

honetan ahalik eta zehaztasunik handiena bilatu da, eta aurrez aipatutako hiru katebegi horietan zentratu da arreta, zuzenago lotzen zaizkio-eta sortzeko egitate edo momentu berari.

Bistakoa denez, badira beste katebegi asko balio-kate artistiko eta/edo kulturalaren barruan, eta funtsezkoak dira pertsona eta erakundeen jardun profesionalerako, baina fokutik kanpora geratuko zaizkigu hemen. Katebegi horien artean daude, adibidez, lan profesionalaren aldez aurreko prestakuntza, edota zerikusi handia dutenak aurkezpen, erakusketa, zabalkunde, dibulgazio, merkaturatze, bitartekaritza edo kontserbazioarekin, zeinak, askotan, guztiz elkarloturik dauden sorkuntza berarekin. Beraz, nahiz eta, noizik behin, katebegi horietakoren bat aipatuko den sistemaren ulermen holistikoa errazteko xedearekin, azterlan



## 3. KONTZEPTU-ESPARRUA

### 3.3. SORKUNTZA SOSTENGATZEKO ERAK ETA ALDAGAIAK

Sorkuntzaren sostengua, azterlan honen eraginetarako, lau era desberdinetara egin daiteke, bai banaka edota haien arteko konbinazioen bidez:

- 1. Azpiegiturekin**  
(espazioak, ekipamendu fisikoak...).
- 2. Baliabide materialekin**  
(erremintak, denetariko baliabide teknikoak, praktiken araberakoak...).
- 3. Baliabide ez-materialekin**  
(teknologiak, lan-metodologiak, harreman-sarea...).
- 4. Zerbitzu eta programekin**  
(prestakuntza edo trebakuntzakoak, finantzaketakoak, administrazio edo kudeaketakoak, laguntza edo bitartekaritzakoak, mugikortasun edo egoitzakoak).

Eta lau dira lehentasunez aztertu beharreko aldagaiak:


- 1. Irekitasun eta irispide publikoaren maila handiago edo txikiagoa**  
(egoiliarrak edo kideak soilik, beste sortzaile batzuei irekita...).
- 2. Eskaintza mota eta bere egituratze-maila**  
(sistematizatua eta errepikaria, noizean behingoa...).
- 3. Espezializazio- edo zeharkakotasun-maila balio-katearen** adierazpen edo katebegi bati dagokionez.
- 4. Trakzio-ahalmen handiagoa edo txikiagoa** beste eragile edo programa batzuekiko, eta ekosistema bera indartuko duen sarea sortzeko ahalmena.



AZPIEGITURA, BALIABIDE MATERIAL  
ETA EZ-MATERIAL, ZERBITZU ETA  
PROGRAMEN BIDEZKO SOSTENGUA.

# 3. KONTZEPTU-ESPARRUA

Irekitasun eta sarbide publikoaren maila aztertuta



Espezializazio- eta/edo zeharkakotasun-maila aztertuta

## 4. ESPARRU, ERAGILE ETA PROGRAMEN TIPOLOGIA

Prestatutako kontzeptu-markotik abiatuta, sei esparrutan antolatutako kategorizazioa proposatzen da, Euskadiko Sorkuntza Sostengatzeko Sistemaren izaera ulertzeko lagungarri gerta dadin:

- Sorkuntzari zuzeneko sostengu estrukturala emateko eragileak.
- Sorkuntza edo testuinguru-sorrera sostengatzeko programak eta ekintzak dituzten eragileak.
- Sorkuntza sostengatzeko beste baliabide batzuk.
- Sortzaileak kudeaketan, aholkularitzan, lagun egiten eta bistaratzen trebatzeko eragileak edo programak.


- Sorkuntza sostengatzeko laguntza eta dirulaguntza publikoak Euskadin.
- 6. Beste esparru osagarri batzuk:
  - Diziplina-prestakuntza, Erakusketa eta zabalkundea, Jaialdiak eta feriak, Ordezkapen kolektiboko erakundeak eta Zerbitzu espezializatuak

Esparru horietako bakoitza irudikatzeko, deskribapen laburren bitartez aurkezten dira eragileen zerrenda arrazoitu batzuk, bai eta bakoitzaren programa adierazgarriak ere. Alfabeto-hurrenkeran jarri dira. Sorkuntzari zuzeneko sostengu estrukturala ematen dioten eragileen kasuan, eranskin bat gehitu dugu, fitxa espezifiko zehatzekin.

SISTEMA ASKOTARIKOA, ERA GUZTIETAKO  
AGENTE ETA ROLAK DITUENA



## 4. ESPARRU, ERAGILE ETA PROGRAMEN TIPOLOGIA



1. Sorkuntzari zuzeneko sostengu estrukturala emateko eragileak.
2. Sorkuntza edo testuinguru-sorrera sostengatzeko programak eta ekintzak dituzten eragileak
3. Sorkuntza sostengatzeko beste baliabide batzuk.
4. Sortzaileak kudeaketan, aholkularitzan, lagun egiten eta bistartzen trebatzeko eragileak edo programak.
5. Sorkuntza sostengatzeko laguntza eta dirulaguntza publikoak Euskadin.
6. Beste esparru osagarri batzuk:
  - 6.1 Diziplina-prestakuntza
  - 6.2 Erakusketa eta zabalkundea
  - 6.3 Jaialdiak eta feriak
  - 6.4 Ordezkapen kolektiboko erakundeak
  - 6.5 Zerbitzu espezializatuak.

Kontuan hartuta sorkuntzaren hedapen, dibertsitatea eta dinamismo handia, jakintzat ematen dugu txosten honetan ez direla diren guztiak agertuko. Zerrenda osatu gabeak dira, ezinbestean, ez oso-osoak; batez ere, **hurbiltze-begirada bat osatzea bilatzen dute, sistema orokorrean uler dadin**, sistema beraren deskribapen zehatza egitea baino gehiago. Horregatik, batzuetan irudi luke euskal kulturaren eta sormenaren panoramako eragile garrantzitsuak falta direla (herrialdeko erakunde handi guztiak ez daude sorkuntza sostengatzera zuzenduta, ezarritako irizpideen arabera; aitzitik, beste eginkizun batzuk betetzen dituzte). Beste kasu batzuetan,

esandako irizpideak betetzen dituen jardueraren parte garrantzizkoena soilik hartu da kontuan. Gainera, eragileak txostenaren esparru edo apartatu batean edo bestean kokatuta egoteak ez du esan nahi garrantzi handiagoa edo txikiagoa dutenik; aldiz, asmoa da Euskadiko sorkuntzaren sostenguan zehatz-mehatz zer paper jokatzen duten adieraztea (paper hori, gainera, kasu askotan aldarokorra da eta zenbait faktoreren mende dago: unea, finantzaketa, programa eta jarduera zehatzak, eragilearen beraren eboluzioa, testuingurua...). Edonola ere, ezein eragile kanpoan uzteko asmorik gabe egindako zerrendak dira, eta irekita geratzen dira etorkizuneko berrikuspen eta handitzeetara.

## 4. ESPARRU, ERAGILE ETA PROGRAMEN TIPOLOGIA

### 4.1. SORKUNTZARI ZUZENeko SOSTENGU ESTRUKTURALA EMATEKO ERAGILEAK

Ezaugarri hauek izan ohi dituzte: azpiegitura eta/edo egitura iritsi-errazak eta irekiak eta, baliabide materialak eta immaterialak ez ezik, hainbat zerbitzu eskaintzen dituzte. Lehen apartatu honetan kokatutako eragileek intentsitate-maila desberdinetan egiten dute beren eskaintza, baina modu iraunkor eta egonkorrean, eta sorkuntza sostengatzeko tokiko edo nazioarteko sareekin loturik.

Gainera, askotan eskaintzen dituzte beste zerbitzu asko, azterlaneko hurrengo apartatu batzuetan zehaztasun handiagoz aurkezten diren etatik (finantzaketa, lagun egitea eta trebakuntza ematea kudeaketan, bistaratzen, sustapenean...).

Eragile horien jarduera guztia ez dago, nahitaez, sorkuntzaren sostenguan zentratuta, baina, ikuspegi desberdinetatik, horixe da haien eginkizunaren foku zentrala.

#### ARROPAINeko ARRAGUA

Lekeitio, Bizkaia.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Zeharkakoa.  
Webgunea: <http://www.arragua.org>

Sorkuntza gune honek artearen eta pedagogiaren elkargunera bideratzen ditu bere ekintzak. Egoitzetarako deialdi irekia eta iraunkorra du, hainbat modalitatetan egituratuta; haien bitartez, espazioak lagatzen ditu, eta baliabide teknikoak zein materialak edota laguntza eta bitartekaritza eskaintzen du, tokiko egiturekin, beste batzuen artean.

#### AZALA KREAZIO ESPAZIOA

Lasierra, Araba.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Eszenikoak eta zuzenekoak, arte plastikoak eta ikusmen-arteak.  
Webgunea: <http://www.azala.es>

Landa ingurunean kokatutako sorkuntza gunea, batez ere, arte eszeniko eta performatiboen eremuan lan egiten duena, ikerketa-, gogoeta- eta sormen-prozesuetan fokua jarriarik. Azalak egoitza edo egonaldi artistikoak hartzen ditu deialdi ireki eta iraunkorraren bitartez; gainera, erreferentziako puntu bat da nazioarteko eta nazioarteko artisten topagune gisa. K.A.P.I.K (P.I.C.A) programa koordinatzen du (Kreazio Artistikoko Prozesuen Imajinario Kolektibo Programa).

#### AZKUNA ZENTROA: EGONALDIEN PROGRAMA

Bilbo, Bizkaia.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Eszenikoak eta zuzenekoak, arte plastikoak eta ikusmen-arteak, zeharkakoa.  
Webgunea: <https://www.azkunazentroa.eus>

Aisialdi eta kultura garaikideko espazio publiko honek egonaldi artistikoen programa bat garatzen du, zeinaren helburua baita, ikerketa, sormena eta ekoizpena sostengatzeaz gainera, hurbileko sormen-ehuna nazioarteko kultur inguruneekin konektatzea. Urtean 3 deialdi bultzatzen ditu, dantza garaikidearen, arte plastiko eta ikusmen-arten eta musika esperimentalaren eta soinu-artearen esparruetan. Tokiko sorkuntza garaikidea bistaratzeko ekimenak ere bultzatzen ditu, Bideotik edo Prototipoak, esate baterako.

#### BARATZA ARETOA

Vitoria-Gasteiz, Araba.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Eszenikoak eta zuzenekoak.  
Webgunea: <http://salabaratz.com>

Arte eszeniko garaikideetarako zentro independentea. Hainbat diziplina eszenikotan gora datorren kultura-sorkuntza faboratzen duten jardueren egiten die leku,

## 4. ESPARRU, ERAGILE ETA PROGRAMEN TIPOLOGIA

sorkuntza, zabalkundea, erakusketa eta prestakuntza barne direla. Horretarako, egoitza edo egonaldi modalitate desberdinak ez ezik (lagatzea, lankidetzan, urteko deialdia laguntza ekonomikoarekin...), beste hauek ere eskaintzen ditu; prestakuntza eta programazio eszenikoak.

### **BILBAO ARTE**

**Bilbo, Bizkaia.**

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Arte plastikoak eta ikusmen-arteak.

Webgunea: <https://bilbaoarte.org>

Arte ekoizpeneko gunea, Bilboko Udaleko Kultura Sailaren mendekoa. Artista egoiliarren eskura jartzen ditu haien proposamenak garatzeko beharrezko dituzten bitartekoak eta azpiegiturak, aipatutako artista horien profesionalizatzea sostengatzeko helburuarekin. Honako hauek ditu: beka-programak, nazioko eta nazioarteko mugikortasuna, prestakuntza eta aholkularitza.

### **BILBAO ESZENA**

**Bilbo, Bizkaia.**

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Eszenikoak eta zuzenekoak.

Webgunea: [http://www.bilbao.eus/cs/Satellite?cid=3000417298&language=es&pageid=3000050688&pagename=Bilbaonet%2FBIO\\_Equipamiento\\_FA%2FBIOEquipamiento](http://www.bilbao.eus/cs/Satellite?cid=3000417298&language=es&pageid=3000050688&pagename=Bilbaonet%2FBIO_Equipamiento_FA%2FBIOEquipamiento)

Antzerki-baliabideen zentroa, Bilboko Udalaren mendekoa. Antzerki amateur eta erdi-profesionalaren lana sostengatzea eta zabaltzea ditu helburu. Entsegu- eta bilera-aretoak ditu, dokumentazio-zentroa eta jarduera eszenikorako baliabide tekniko eta materialak. Sorkuntza, berrikuntza eta ikerketa sostengatzeko «Erresidentzia artistikoak» programa bultzatzen du.

### **BITAMINE FAKTORIA**

**Irun, Gipuzkoa.**

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Arte plastikoak eta ikusmen-arteak, diseinua.

Webgunea: <http://www.bitamine.net>

Kultura, diseinua eta arte garaikidea ekoizteko eta zabaltzeko gune bat, non diziplina arteko proiektuak garatzen diren eta non berrikuntza, sormena eta esperimentazioa baloratzen diren. Sorkuntzarako laguntzak eskaintzen ditu tokiko eta nazioarteko artistentzat, guztietan ere nazioartekotzeari eta mugikortasunari arreta jarririk.

### **BUENAWISTA PROLLECKZIOM'S**

**Donostia, Gipuzkoa.**

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Musika.

Webgunea: <http://katapulta.org>

Agertzen ari diren sortzaile profesionali edo erdi-profesionali zuzendutako jarduerak bultzatzen dituzte.

Haien programa eta zerbitzuen artean, hauek nabarmentzen dira: Katapulta, lurraldean talentu berriak baliaraztea eta bultzatzea bilatzen duen programa eta Musikagela, udal zerbitzua entseguetarako lokalak lagatzeko, prestakuntza espezializatua emateko eta audio profesionalerako grabazio-materiala mailegatzeko.

### **CONEXIONES IMPROBABLES**

**Vitoria-Gasteiz, Araba.**

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Erlazio-arteak, zeharkakoa.

Webgunea: <http://conexionesimprobables.es>

Berrikuntza irekiko proiektuak sustatzen eta garatzen ditu, hibridazio-metodologia baten bidez, non enpresa edo erakunde beharrezkoak eta erronkak hainbat diziplinako artista edo sortzaileen sormenarekin eta jakintzarekin batzen dituen. EXCITE 2.0 nazioarteko partzuergoaren parte da, zeinak ekintzaile eta sortzaileen egonaldiak sustatzen baititu Erasmus for Young Entrepreneurs europar programaren barruan.

### **DANTZAGUNEA**

**Erreterria, Gipuzkoa.**

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Eszenikoak eta zuzenekoak.

Webgunea: <http://dantzagunea.gipuzkoakultura.net>



## 4. ESPARRU, ERAGILE ETA PROGRAMEN TIPOLOGIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako zerbitzua, dantzaren esparruko ikasketa- eta sorkuntza-prozesuak faboratzera zuzendua: koreografia-sorkuntzen bultzada, egonaldiak, coaching artistikoa, ikerketa, prestakuntza espezializatua eta zabalkundea, eta ikus-entzuleen sentsibilizazioa.

### ESPACIO OPEN

Bilbo, Bizkaia.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Maker kultura.  
Webgunea: <https://espacioopen.com>

Sormen- eta gizarte-proiektuen ekosistema. Herritarren laborategia artearen, teknologiaren eta kultura garaikidearen arteko elkargunean, non sortzaileek eta ikertzaileek beren lanak ekoizten dituzten. Sormen-teknologiei eta fabrikazio digitalari buruzko zenbait prestakuntza-programa dituzte, bai eta egoitza-mintegi programa bat ere artista, teknologo edo diseinatzaileentzat.

### GARAION SORGINGUNEA

Ozaeta, Araba.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Eszenikoak eta zuzenekoak, eskulangintza, arte plastikoak eta ikusmen-arteak.  
Webgunea: <https://garaion.eus>

Sorkuntza gune honen ardatzak izadia, sormena eta gizarte-ongizatea dira. 300 m<sup>2</sup>ko eszena gunea du eta egoitza artistikoetarako (ikerketa, esperimentazioa, sorkuntza) prestatutako beste hiru espazio 50na metro koadrokoak. Landa-esparrutik egiten dute lan, euskarazko sorkuntza bultzatzen dute eta lehentasunezko arreta jartzen diote emakumeek garatutakoari.

### HARROBIA

Bilbo, Bizkaia.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Eszenikoak eta zuzenekoak.  
Webgunea: <http://www.harrobia.org>

Eszena-ekoizpenaren berrikuntza-zentro honek konpainiei zuzendutako espazioak, baliabideak eta zerbitzuak eskaintzen ditu, konpainia horiek proiektuak profesionalki garatzeko aukera izan dezaten. Honako hauek eskaintzen ditu, besteak beste: ikuskizunen ekoizpena eta abian jartzea, entrenamendurako espazioak, egoitza- eta prestakuntza-programak edo antzerki-berrikuntza eta -ikerketa proiektuak.

### HISTERIA KOLEKTIBOA

Bilbo, Bizkaia.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Zeharkakoa.  
Webgunea: <http://histeriak.org>

Arte/kultura/gizarte-eraldaketa ardatzaren inguruan bildutako emakumez eratutako kolektiboa. Bilboko San Frantzisko auzoan jarduten dute, Karpinteria izeneko espazioan, non artista eta sortzaileak hartzen baitituzte egonaldien bitartez; gainera, Klinika programa bultzatzen dute, kudeaketa eta zabalkunde zereginetan lagun egiteko, bai eta euskal testuinguruko artisten nazioarteko trukea ere.

### KUNARTE

Vitoria-Gasteiz, Araba.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Eszenikoak eta zuzenekoak.  
Webgunea: <http://www.teatroparaiso.com/es/kunarte>

Artearen berrikuntzarako gune hau haurrei eta haiei laguntzera datozen helduei zuzenduta dago (artistak, familiak, irakasleak, ikertzaileak, edota politikarekin eta komunikabideekin lotura duten pertsonak). Proiektuak barnean hartzen ditu sorkuntza-, prestakuntza-, erakusketa- eta ikus-entzule laborategiaren arloko ekintzak, eta jarduera-abaniko zabal bat garatzen du, arte-sorkuntza profesionala garatzeari eta sustatzeari begira.

### KUTXA KULTUR

Donostia, Gipuzkoa.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Musika, moda, arte plastikoak eta ikusmen-arteak.  
Webgunea: <https://www.kutxakultur.eus>

## 4. ESPARRU, ERAGILE ETA PROGRAMEN TIPOLOGIA

Kutxaren kultura-egoitza da, eta Tabakalera dago. Plataforma hau proiektuaren kultura-eragileen eta artisten bizikidetzaren sustatzeko da, eta horien gorabideko talentu amateurrari laguntzeko ere bai. Sorkuntza eta produktzioa sostengatzeko zenbait programa ditu: egonaldiak, ekipatutako espazioetarako irispidea, coworking, eta prestakuntzarako eta lagun egiteko programen bitartez.

### LA FUNDICIÓN

#### Bilbo, Bizkaia.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Eszenikoak eta zuzenekoak.

Webgunea: <https://www.lafundicion.org>

Sorkuntza garaikidea erakusteko espazioa. Ikerketarako, sorkuntzarako, sentsibilizatorako eta prestakuntza iraunkorrerako baliabide-zentroa. Lan-arlo du tokiko sortzaileen sostengua, baliabidetzat hartuta sorkuntzarako egoitzetarako, lagun egiteko, nazioartekotzea sustatzeko, prestakuntzarako, bistartzeko eta zabalkunderako programak, estatuko eta nazioarteko konpainiek gunean duten presentziarekin batera.

### TABAKALERA, NAZIOARTEKO KULTURA GARAİKIDEAREN ZENTROA

#### Donostia, Gipuzkoa.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Arte plastikoak eta ikusmen-arteak, ikus-entzunezkoak, maker kultura, zeharkakoa.

Webgunea: <https://www.tabakalera.eu/>

Zentroak, bere programazio propio zabala eta eraikinean egoitza duten eragileena ez ezik, sorkuntza sostengatzeko zenbait programa eta baliabide ditu, honako jarduketaren eremu hauek gailentzen direlarik: zinema eta ikus-entzunezkoak, arte garaikidea, maker kultura eta kultura- eta sormen-industriak. Ildo horretan nabarmentzen dira: Sortzaileen Gunea (nazioarteko eta tokiko egonaldiak, aholkularitza eta baliabideak proiektu artistikoak abian jartzeko eta garatzeko), hirikilab deituak (kultura digital eta teknologia askeen laborategiak) edo 2DEO (ikus-entzunezko eredu eta formatu berrien laborategia euskaraz).

### WIKITOKI

#### Bilbo, Bizkaia.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Zeharkakoa.

Webgunea: <http://wikitoki.org>

Elkarsorkuntzarako laborategia, harreman, antolakuntza, ikerketa, sorkuntza, ekoizpen eta kontsumo modu berrien inguruan esperimentatzen duena. Lanerako eta elkartzeko espazio partekatua, autogestionatua, beste gauza batzuen artean hauek dituen: urteko egonaldi-programa bat, hiru modalitatetan (jarraituak, aplikatuak eta esperimentalak) eta Proiektu Elkartuen programa bat; gainera, proiektu propioak ere bultzatzen ditu, hala nola RIE Bilbao (baliabideak trukatzeko tokiko sarea).

### ZAWP

#### Bilbo, Bizkaia.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Zeharkakoa.  
Webgunea: <https://www.zawp.org>

Deustuko Erribera eta Zorrotzaurre auzoetako hirigintza-planaren «bien bitartekoari» aurre egiteko sortutako proiektua. Auzoaren biziberritze sozial, ekonomiko eta kulturalaren alde lan egiten du sorkuntzaren, esku-hartzearen eta oroimena baliaraztearen bitartez. Erakusketa, sorkuntza eta lanerako espazioak ditu, bai eta nazioarteko egonaldietarako programa bat ere.

### ZIRKOZAUURE

#### Bilbo, Bizkaia.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Eszenikoak eta zuzenekoak.

Webgunea: <http://zirkozaurre.com>

Zirkuko eta arte performatiboen sorkuntza- eta zabalkunde-zentroa. Sektorera profesionalizatzea du helburu, prestakuntza, sorkuntza eta bitartekaritza azpimarratuta. Proiektua prestakuntza-eskolan, erresidentzia artistikoetan, eta zirkuko eta kaleko arteen erakusketan oinarritzen da. Haztegia programa nabarmentzen da: sorkuntzarako, aholkularitzarako eta sorkuntzan lagun egiteko haztegia edo mintegia.

## 4. ESPARRU, ERAGILE ETA PROGRAMEN TIPOLOGIA

### 4.2. SORKUNTZA EDO TESTUINGURU-SORRERA SOSTENGATZEKO PROGRAMAK ETA EKINTZAK DITUZTEN ERAGILEAK

Ezaugarritzat dute programa zehatzak edo noizbehinkako egintza puntualak garatzen dituztela (funtzionalitate edo hartzaile espezifiko batzuekin), sorkuntza sostengatzeko hainbat aukera eskaintzen dituztela, bai eta ingurunea dinamizatzeko eta aldeko baldintzak sortzeko eta ingurune hori eratzen duten eragileak dinamizatzeko ere.

#### AMIARTE

Bilbo, Bizkaia.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Arte plastikoak eta ikusmen-arteak.  
Webgunea: <http://www.amiarte.org>

Diziplinarteko sorkuntza artistikorako lantegia. Arte parte-hartzaileko proiektuak garatzen ditu, zeinetan esperientzia partekatzen duten artista eta profesionalek eta gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonak osatutako lantaldeek, berdintasuna sostengatuz eta dibertsitatea integratuz.

#### ANT ESPACIO

Bilbo, Bizkaia.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Arte plastikoak eta ikusmen-arteak.  
Webgunea: <https://antespacio.com>

Proiektu artistiko eta kulturalak sortzeko kolektiboa. Honako hauek ditu jarduera nagusi: Iturfest jaialdia, zeinak artistak gonbidatzen dituen espazio eta denbora jakin batean proiektu espezifikoak sor ditzaten, Bilboko Iturralde auzoan; edo Vis a vis, parkeetan egindako arte-eragileen arteko zenbait elkarrizketa. Komisariotza edo aholkularitza jarduerak, argitalpenak etab. ere garatzen dituzte.

#### ARTEDRAMA

Leioa, Bizkaia.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Eszenikoak eta zuzenekoak.  
Webgunea: <http://www.artedrama.com>

Arte eszenikoan plataforma. ArteDrama Euskal Laborategia (ADEL) bultzatzen dute, arte eszenikoak euskaraz lantzen dituztenentzako topagune bat. Programazio eszenikotik harago, laborategiak formatu trinkoko tailerrak ere baditu, elkar trukeak, ezagutzak eta eztabaidak sustatzea helburutzat hartuta.

#### ARTGIA

Vitoria-Gasteiz, Araba.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Arte plastikoak eta ikusmen-arteak.  
Webgunea: <http://artgia.com>

ARTgia sorkuntza- eta erakusketa-espazio bat da, eta sorkuntzarako baldintzak erraztea du helburu. Espazio horretan aktiboki sustatzen da proposamen artistiko desberdinen arteko hibridazioa: banakakoak eta kolektiboak. Bere ildo estrategikoak dira agertzen ari den sorkuntzaren sostengua, generoa, euskara eta gizarte-eraldaketaren aldeko apustu argia.

## 4. ESPARRU, ERAGILE ETA PROGRAMEN TIPOLOGIA

### BILBAO ART DISTRICT

Bilbo, Bizkaia.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Arte plastikoak eta ikusmen-arteak.

Webgunea: <http://www.bilbaoartdistrict.com>

Bilbao Ekintza sustapen ekonomikorako agentziak bultzatutako programa bat da, eta helburu du maila profesionaleko arte-testuingurua baliaraztea eta garatzen laguntzea hirian, elementu estrategiko gisa hiriaren aurrerabidean eta etorkizunerako proiektioan. Gogoetarekin edo dibulgazioarekin zerikusi handiagoa duten jardueraz gain, 25.000 €-rekin hornitutako deialdi ireki bat bultzatzen du, ondorengo ildo hauetakoren batean sartzen diren proiektuak garatzeko: artearen sektoreko ekoizpena, bitartekaritza eta sustapen ekonomikoa.

### BILBAO FORMARTE

Bilbo, Bizkaia.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Arte plastikoak eta ikusmen-arteak.

Webgunea: <http://conexionesimprobables.es>

Arte-eskola bat da, desgaitasun psikiko edo intelektuala duten pertsonen prestakuntzara zuzendua batez ere, pertsona horiek artearen bidez hezkuntzan aurrera egin, sormena handitu eta beren artelan propioa garatzeko modua izan dezaten, betiere, pertsonaren garapena

bilatzeaz gainera, ekoizpen artistikoarekin eta/edo arte aplikatuekin lotura duten lanbide-irteerarako prestatzeko xedez.

### BULEGOA Z/B

Bilbo, Bizkaia.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Arte plastikoak eta ikusmen-arteak.

Webgunea: <http://bulegoa.org>

Lankidetzan oinarritutako arte eta ezagutza bulegoa. Praktika eta teoria gurutzatzen diren toki bat da. Proiektu artistikoen ekoizpenean, eztabaidan, ideia-trukean eta materializazioan zentratzen da. Egoitza-programa bat du (urteroko) deialdi edota gonbidapen bidez, arte- eta ezagutza-ekoizpena sostengatzeko. Topaketak, mintegiak, hitzaldiak eta abar antolatzen ditu.

### SANAGUSTIN KULTURGUNEA

Azpeitia, Gipuzkoa.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Zeharkakoa.

Webgunea: <https://www.kulturaz.eus/san-agustin>

KulturaAZ kooperatibak kudeatutako kultura espazioa. Programazioaz gainera, sormena eta transmisioa sustatzeko helburua duten proiektuak garatzen dituzte: Arkupehotsak programa, sormen-egoitzak, besteak beste.

### KAROLA ZIRKUA

Bilbo, Bizkaia.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Eszenikoak eta zuzenekoak.

Webgunea: <https://www.zawp.org/10-karola-zirko-espazio>

Maderas Deustoren antzinako pabilioian dago kokatua zirkuko eta kale-antzerkiko artearako espazio hau. Konpainia profesionalek beren beharrezan arabera diseinatutako gunea dute hemen: entrenamendu- eta entsegu-aretoak, biltegia, bulegoa, tailerra eta erakustokia.

### CONSONNI

Bilbo, Bizkaia.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Arte plastikoak eta ikusmen-arteak, literatura.

Webgunea: <https://www.consonni.org>

Arte-ekoiztetxe independente honen jarduera kultura kritikoaren ekoizpenean zentratzen da, artearen, literaturaren, irratia edo hezkuntzaren eremutik. Ekonomia sozial eta solidariotik eta hurbileko erkidego batetik abiatzen dira, tokiko eta nazioarteko sormen-talentua sostengatzeko. Arte-proiektuak, tailerrak, topaketak, egoitza artistikoak eta abar editatzen, banatzen eta ekoizten dituzte.

## 4. ESPARRU, ERAGILE ETA PROGRAMEN TIPOLOGIA

### DANTZAN BILAKA

#### Euskadi.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Eszenikoak eta zuzenekoak.

Webgunea: <https://www.euskadi.eus/dantz-an-bilaka-procesos-de-creacion-coreografica/web01-a2kulsus/es>

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Koreografia Sorkuntzako Laguntzetarako deialdiaren inguruan sustatutako programa, ADDEk koordinatuta. Laguntza, prestakuntza eta lanen zabalkundea eskaintzen ditu, bai eta esparru bat ere koreografia-sorkuntzaren inguruko elkarrizketarako eta gogoeta teorikorako. Ikus-entzule berrien sentsibilizazioaren arloan ere lan egiten du.

### EREMUAK

#### Bilbo, Bizkaia.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Arte plastikoak eta ikusmen-arteak.

Webgunea: <http://www.ereмуak.net>

Eusko Jaurlaritzak sustatutako programa, Euskadiko museo batzuen eta arte-zentroen artean mugitzen dena, arte-sorkuntza sustatzeko eta testuingurua dinamizatzeke. Arte garaikidea eta hari lotutako diskurtsoak gizarteratzeko lan egiten du, ekoizpenaren eta zabalkundearen artean behar den korrelazioan eraginez. Deialdi ireki eta jarraitu batek bezala

funtzionatzen du, eta sorkuntza-proposamenen ekoizpena, interpretazioa eta bitartekaritza hartzen ditu kontuan. Harriak programa ere sustatzen du, euskal udalerrietan erakusketak zabaltzeko eta komisariotza lanetarako; gainera, jardunaldiak antolatu eta argitalpenak editatzen ditu. Bi egonaldi garatzen ditu, horietako bat nazioartekoa.

### ESPACIO PUNTO DE FUGA

#### Bilbo, Bizkaia.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Eszenikoak eta zuzenekoak.

Webgunea: <http://espaciopuntodefuga.com>

Dantzaren sektorea sostengatzeko eta bistartzeko espazioa. Dantza-eskola erregularrak eta workshopak ematen dituzte; sektoreko eragileak sostengatzeko bulego bat ere badute. Mugimenduaren inguruan lan egiteko egonaldi artistikoen deialdi bat ere egiten dute.

### GUGGENHEIM MUSEOA: BASQUE ARTIST PROGRAM

#### Bilbo, Bizkaia.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Arte plastikoak eta ikusmen-arteak.

Webgunea: <https://www.guggenheim-bilbao.eus/empleo-y-practicas/basque-artist-program>

Euskadin jaio edo bertan bizi diren artista berriei zuzendutako programa. Deialdian bi pertsona hautatzen dira New Yorken lau asteko egonaldi bat egin dezaten, hiriko eszena artistikoa ezagutzeko, elkar trukea sustatzeko eta pertsona horien gaitasun profesionalak hobetzeko helburuarekin.

### IK 109 LAB

#### Donostia, Gipuzkoa.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Zeharkakoa.

Sorkuntza-laboretegia, artea, kultura, hezkuntza eta gizarte gaiak xede dituena. Arkitektureari, arte bisualei, arte eszenikoei, diseinuari edota arkeologiari loturik, diziplina-ibilbide paraleloak dituzten artista eta pertsona sortzaileek bultzatua.

### KALAKALAB

#### Vitoria-Gasteiz, Araba.

Arreta-sektorea: Ikusmen-arteak, ikus-entzunezkoak.

Webgunea: <https://zineleku.wixsite.com/kalakalab/quienes-somos>

Egiten dituzten proposamenak elkar elikatzen duten bi ardatzen inguruan mugitzen dira: 1) ikus-entzunezkoen hainbat adierazpen estimulatzaile eta sustatzaile, belaunaldi berriei begira; eta 2) ikus-entzunezkoetako eta beste arte-ingurune batzuetako kanpoko

## 4. ESPARRU, ERAGILE ETA PROGRAMEN TIPOLOGIA

eragileekiko lankidetzaren profesional zeharkakoa. Bizikidetzaren eta murgiltze-esperientziaren kolektiboa sustatzen duten formatu ez-konbentzionaleko jarduerak garatzen dituzte, hala nola Zineleku, Topaleku edo ZLab.

### KALEARTEAN

#### Basauri, Bizkaia.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Zeharkakoa.  
Webgunea: <https://www.kaleartean.com>

Hutsik dauden merkataritza-lokaletan esku hartzeko proiektua da, artearekin, diseinuarekin eta sormenarekin lotura duten praktiken bitartez, biziberritze sozial eta ekonomiko baten bila. Esku-hartze proiektuak deialdi publiko bidez hautatzen dira eta 900 € jasotzen dituzte, sari gisa, hura egikaritzeko. Basauriko Udalak bultzatzen du ekimena eta Marakak garatzen du.

### KOMISARIO BERRIAK

#### Euskadi.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Zeharkakoa.

Komisariotzaren ibilbidea hasten ari diren pertsonen sostengua eskaintzera bideratutako programa, azken hamarraldiotan Euskal Herriari

lotutako praktika artistikoei erantzuten dieten proiektuak bistaratzeko helburuarekin. Eusko Jaurlaritzak sustatzen du Artiumekin (Vitoria-Gasteiz), Tabakalerarekin (Donostia) eta Az Zentroarekin lankidetzan

### LARRASKITO

#### Bilbo, Bizkaia.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Musika.  
Webgunea: <http://www.xedh.org/larraskito>

Lokal autogestionatua da, Bilboko eraikin industrial batean kokatua; auditorium eta soinu-sorkuntzarako tailer gisa definitzen da. Adi entzutea eta esperimenezko eta sorpresarako prest egotea lehenesten dute.

### META!

#### Gipuzkoa.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Zeharkakoa.  
Web: <http://www.goteo.org/call/meta-gipuzkoa-2018>

Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako finantzaketa kolektiboko programa bat Gipuzkoako eragile eta kolektiboen kultur proiektuak sostengatzeko eta bultzatzeko. Hautatutako proiektuak crowdfunding kanpaina bat garatzen dute, eta, erantzukidetasun publiko-sozialaren logika aplikatuz, herritarrek jartzen duten euro bakoitzeko, Aldundiak beste euro bat eransten du.

### MONTEHERMOSO KULTURUNEA DEIALDIAK

#### Vitoria-Gasteiz, Araba.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Arte plastikoak eta ikusmen-arteak.  
Webgunea: <https://www.montehermoso.net>

Kulturuneak hiru deialdi bultzatzen ditu: Proiektu Artistikoak, tokiko artisten proiektuak ekoizteko, erakusteko eta zabaltzeko helburua duena; Giza Eskubideak eta Sorkuntza, giza eskubideen egungo egoerari buruz gogoeta eta analisi kritikoak egin ahal izateko marko bat sortuko duen proiektu bat garatzeko xedearekin; eta, UPV/EHUarekin lankidetzan, profesionalizatzeko fasean dauden artisten lau proiektu hautatzeko deialdia.

### MUTUR BELTZ

#### Karrantza, Bizkaia.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Arte plastikoak eta ikusmen-arteak.  
Webgunea: <http://karrantzakomuturbeltz.blogspot.com>

Karrantzako ardi muturbeltza sustatzeko elkarte agro-ekologiko, artistiko eta kulturala. Bere helburu nagusietako bat ardi horien artilea lehengai gisa balioztatzea da, arte-praktika garaikidearen eta diseinuaren bitartez. Horretarako, kultur jarduera batzuk bultzatzen ditu eta Ondo Bizi izeneko egonaldietarako deialdia egiten du.

## 4. ESPARRU, ERAGILE ETA PROGRAMEN TIPOLOGIA

### NOKA MENTORING

Euskadi.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Ikus-entzunezkoak.  
Webgunea: <https://www.zineuskadi.eu/es/programa/co-602/>

Mentoring eta laguntza pertsonalizatuko programa honen helburua da: Euskadin oinarria duten emakume zinemagile independenteak bultzatzea eta sostengatzea, lan zinematografiko luzeak gara ditzaten (fikzioa, animazioa, dokumentala, hibridoak, ez-fikzioa, etab.). Programan zehar, hautatutako hiru proiektutan lan egiten da, zein bere garapen-prozesuko fasean dagoela: gidoia, zuzendaritza, ekoizpena eta banaketa/nazioartekotzea.

### OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA

Vitoria-Gasteiz, Araba.

Arreta-sektorea: Zeharkakoa.  
Webgunea: <https://oihaneder.eus>

Aisialdiarekin eta euskal kulturarekin lotutako proiektua. Euskarazko sorkuntza sostengatzeko ekimenen artean, hauek nabarmentzen dira: Batera, crowdfunding metodoaren bidez arte eta kultura-proiektuak garatzen laguntzen duen deialdia (Gaekoak-ekin); Gazte Sortzaileak, euskarazko kultura-sorkuntza bultzatzeko beka; eta Gazte Sortegiak, gazteentzako sormen-laborategietarako deialdia, artistek garatuta.

### OKELA

Bilbo, Bizkaia.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Arte plastikoak eta ikusmen-arteak.  
Webgunea: <http://www.okela.org>

Espazio honen helburua da arte garaikidearen testuingurua aktibatzea Euskal Herrian, eta zeharkako harremanak sortaraztea artista plastiko eta ikusmenaren alorrekoen artean, inguruko ehunduran dauden hutsuneak identifikatu eta egiteko beste era batzuk sortzeko. Artisten Meeting Pointa sarea eta Kanpo Erakusketak bultzatzen dituzte, sarea osatzen duten artistak bistara ateratzeko.

### PABILIOI 6

Bilbo, Bizkaia.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Eszenikoak eta zuzenekoak.  
Webgunea: <https://pabellon6.org>

Antzerki-laborategi bat dute (laborategi produkzioak): sorkuntza propioen aldeko apustua egiten dute, hainbat konpainia eta lantaldeko profesionalekin. Gazte Konpainia bultzatzen du, arte eszenikoak ikasi dituzten gazteentzat lehen esperientzia profesionala eskaintzen duen plataforma; sektorearekiko lehen harremana, sektorean esperientzia luzea duten lantaldeen eskutik.

### ESKUALDEA PROGRAMA

Araba.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Arte plastikoak eta ikusmen-arteak, zeharkakoa.  
Webgunea: <http://www.artium.org/es>

Deialdi bikoitza: komisariotza eta ekoizpena. Bere helburu nagusia da Arabako Lurralde Historikoan artearen eremuan esku hartzea, arte garaikidearen eta lurraldearen arteko gurutzatze-espazioak sustatzeko, arreta berezia jarri landa-ingurune, espazio natural eta gizarte-testuinguruarekiko elkarriketari. Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak sustatutako programa, Artiumek kudeatzen duena.

### ZUBI PROGRAMA

Euskadi.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Eszenikoak eta zuzenekoak.  
Webgunea: <http://www.zubi.eus>

Udalerrirako arteko programa, euskal sortzaile berriak bultzatzea xede duena, antzerki-lanaren sormen-prozesuan sostengua, sustapena eta laguntza ematearen bitartez. Estreinaldia proiektua sustatu duten konpainietako baten espazioan egiteko aukera eskaintzen dute, eta emanaldi bana programako kide diren udalerrirako bakoitzean; gainera, aretoak eskaintzen dituzte entseguetarako, egonaldi labur bat eta aholkularitza artistikoa, teknikoa eta kudeaketa-arlokoa.

## 4. ESPARRU, ERAGILE ETA PROGRAMEN TIPOLOGIA

### SAREAN

#### Bilbo, Bizkaia.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Erlazio-arteak, zeharkakoa.

Webgunea: <https://sarean.info>

Programazio sozio-kulturalerako espazio bat, San Frantzisko auzoko herritarren parte-hartzearen bidez diseinatu. Bitartekaritza kulturalarekin, erkidego-ekintzarekin eta arte-adierazpen berriekin oso lotuta dagoen programazio jarraitua aurrera eramateaz gainera, Gau Irekia jaialdiaren barruan, Luzatu bultzatzen dute: deialdi ireki bat, zeinean hiru proiektu hautatzen baitituzte, tokiko zenbait eragileren arteko sormen-prozesuak planteatzen dituztenak (artistak, bizilagunak, gizarte-erakundeak, dendak...).

### TAN CERCA

#### Bilbo, Bizkaia (Santander eta Gijónekin).

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Zeharkakoa.

Webgunea: <https://www.santandercreativa.com/web/pagina/tan-cerca.html>

Gijón, Santander eta Bilboren arteko Kantauriz gaidiko lankidetzak kulturaleko programa. Daukaten tresna nagusia sei proiektu kulturalen garapenerako deialdi bat da. Proiektu horiek hiru hirietako enpresa, elkarte edo beste kultur eragile batzuek sustatzen dituzte. Deialdiak 60.000 €-ko zuzkidura du, eta helburu hauek planteatzen ditu:

kultur sektorearen sorkuntza, jarraipena edo aberastasuna; programazio kulturala aberastuko duten proposamenak sortzea, eta profesionalen arteko lan-sareak abian jartzea.

### TECHNARTE

#### Bilbo, Bizkaia.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): New Media Art.

Webgunea: [www.technarte.org](http://www.technarte.org)

Artearen eta teknologiaren arteko batasunaren dibulgazioan zentratzen da ekimena. Enpresa-arloko jardueratik harago, egonaldi artistikoak garatzen ditu osagai zientifiko eta/edo teknologiko markatuko inguruneetan: egonaldiak behatoki astronomikoetan (Start Technarte); egonaldia Antartikan, edota 3Dko eskaneatzeko egoitza.

### UNDERMOUNT

#### Donostia, Gipuzkoa.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Zeharkakoa.

Webgunea: <http://www.undermount.org>

Eskulangile, artista, idazle eta mota guztietako sortzaileentzako elkargunea. Sorkuntza sustatzeko espazio bat, bere forma eta adierazpide guztietan, bai eta sormen- eta garaikidetasun-ingurune batean jarduera pribatuak antolatzeko ere, arte garaikideko prestakuntza-, erakusketa-, esperientzia- eta bizikidetzak-proposamenak barne.

### UTOPIAN

#### Getxo, Bizkaia.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Eszenikoak eta zuzenekoak.

Webgunea: <https://www.utopiangetxo.com>

Sorkuntza-espazioa eta arte eszenikoen prestakuntza-zentroa, oinarritik hasi eta profesionalizatzerara iritsi arte; ikuskizunetarako areto bat; topagune bat, irekia eta desberdina, non artista profesionalak eta amateurrek, artea maite dutenak eta adin guztietako ikus-entzuleak erlazionatzen diren. Ekoizpen, esperimendazio eta esku-hartze egoitzen programa bat dute.

### ZAS KULTUR ESPAZIOA

#### Vitoria-Gasteiz, Araba.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Arte plastikoak eta ikusmen-arteak.

Webgunea: <https://zaskultur.wordpress.com>

Berrikuntzarako dispositibo independentea bitartekaritza kultural garaikidean; hurbileneko testuinguru kultural eta artistikoan eragitea eta dinamizatzea bilatzen duena. Inmersiones (murgilketak), Euskadi eta Nafarroako artista hasiberrien kongresua hartzen du, eta Zas Irekia bultzatzen du, agertzen ari den komunitate artistikoaren eskura dagoen komunikazio, topaketa eta elkarrikeria gune bat, testuinguru artistikoaren dimentsio guztietako ezagupenen trukea erraztea bilatzen duena.



## 4. ESPARRU, ERAGILE ETA PROGRAMEN TIPOLOGIA

### 4.3. SORKUNTZA SOSTENGATZEKO BESTE BALIABIDE BATZUK

Batez ere azpiegiturarekin zerikusia duten baliabide eta materialetarako irispidea ematen dute, baina sorkuntza profesionalaren sostengua ez da izaten beti eta nahitaez beren eginkizunaren eta orientazio estrategikoaren elementu nagusia.

#### BILBOROCK

Bilbo, Bizkaia.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Musika, eszenikoak eta zuzenekoak.  
Webgunea: <http://bilbaogazte.bilbao.eus/es/bilborock>

Gazteen eta hiriaren intereseko ekimenak bultzatzeko, sortzeko, erakusteko, esperimintatzeko, ekoizteko eta partekatze gune bat. Balio anitzeko areto bat du (auditoriuma), teknikoki ekipatua eta ongi prestatua jarduera eszenikoak, artistikoak eta sozio-kulturalak hartzeko; erabilera anitzeko sala-laborategi bat; eta zazpi entsegu-areto, ekipatuak eta intsonorizatuak.

#### NIESSEN KULTURGUNEA

Erreterria, Gipuzkoa.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Eszenikoak eta zuzenekoak, musika.  
Webgunea: [www.sarea.euskadi.eus/aa95-detalle/es/contenidos/equipamiento/20150929125705/es\\_def/index.shtml](http://www.sarea.euskadi.eus/aa95-detalle/es/contenidos/equipamiento/20150929125705/es_def/index.shtml)

Udal titulartasuneko balio anitzeko espazioa, auditoriuma, entsegu-sala eta balio anitzeko sei ikasgela dituena. Zentroak eraikina partekatzen du udaleko musika-eskolarekin, Dantzagunearekin eta zinema komertzialeko areto batzuekin. Sorkuntza sostengatzeko xedez, lankidetzazabala mantentzen du antzerki eta dantzako hainbat konpainiarekin. Bi

konpainia egoiliar iraunkorren egoitza eta entsegu-tokia da: Kukai Dantza konpainia eta Dejabu panpin laborategia.

#### SAROBÉ, ARTE ESZENIKOEN GUNEA

Urnieta, Gipuzkoa.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Eszenikoak eta zuzenekoak.  
Webgunea: <http://www.sarobe.info>

Arte eszenikoaren sustapen eta garapenerako udal espazioa, arte eszenikoaren sorkuntzaren, prestakuntzaren eta erakusketaren inguruan dauden beharrezko erantzutea bilatzen duena, maila eta esparru guztietan. Ikuskizunak ekoizteko eta abian jartzeko beharrezkoak diren azpiegiturak eta baliabide teknikoak ditu, hainbat modalitatetan: egoitza, alokairu komertziala, sala edo aretoak lagatzea, diruz lagundutako erregimena...

#### EUSKAL LITERATURA EGONALDIA

Hendaia, Iparralde.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Literatura.  
Web: [http://www.kulturklik.euskadi.eus/noticia/2019051711310820/nekatoenea-residencia-de-escritor-en-vasco-2019/kulturklik/es/z12-detnewpres/?ties=AYUDAS+Y+C ONVOCATORIAS&tieu=LAGUNTZAK+ETA+DEIALDI&r01qtipoSubHome=tipoSubHome\\_Lite](http://www.kulturklik.euskadi.eus/noticia/2019051711310820/nekatoenea-residencia-de-escritor-en-vasco-2019/kulturklik/es/z12-detnewpres/?ties=AYUDAS+Y+C ONVOCATORIAS&tieu=LAGUNTZAK+ETA+DEIALDI&r01qtipoSubHome=tipoSubHome_Lite)

Euskal Kultur Erakundearen, Ipar Euskal Herriko CPIE Littoral Basque-Euskal itsasbazterren eta Euskal

## 4. ESPARRU, ERAGILE ETA PROGRAMEN TIPOLOGIA

Idazleen Elkartearen (EIE) ekimen honetan, beren baliabideak eta eskumenak elkartzen dituzte euskarazko idazleei zuzendutako gazte literaturako egonaldi bat antolatzeko Nekatoenean (Abbadian). 1.000 €-ko beka ematen da eta egonaldiaren iraupena lau astekoa da.

### HUGOENEA: IDAZLEAREN ETXEA

Pasai Donibane, Gipuzkoa.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Literatura.  
Webgunea: <https://www.idazleak.eus/espanol/idazlearen-etxea/hugoenea>

Hizkuntza gutxituetako idazleei zuzendutako sorkuntzarako espazioa, literatur proiektuak gara ditzaten edozein generotan (saiakera, antzerkia, ipuingintza, olerkia, eleberria, haur eta gazte literatura, gidoiak, itzulpena, ikerketa edo kazetaritza) egoitza formatuko egonaldi laburren bitartez. Idazlearen Etxea Pasaiaiko Udalaren eta ElEren arteko hitzarmen batetik sortu zen.

### KULTUR LEIOA

Leioa, Bizkaia.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Eszenikoak eta zuzenekoak.  
Webgunea: <http://www.kulturleioa.com>

Udal titulartasuneko zentroa, kultura eta sorkuntza sustatzen, sostengatzen eta zabaltzen dituen.

Erakusketarako espazio bezala ez ezik, baliabide zentro gisa ere pentsatua dago, sorkuntza sustatzeko, sostengatzeko eta zabaltzeko konpromisoaren barruan, konpainia egoiliar iraunkorraren eta, batez ere, antzerki, dantza, zirku, musika eta kaleko arteen konpainien egoitza artistikoen bitartez.

### LARROTXENE BIDEO

Donostia/San Sebastián, Gipuzkoa.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Ikus-entzunezkoak.  
Webgunea: [https://www.donostiakultura.eus/index.php?option=com\\_flexicontent&view=items&cid=77&id=28220&Itemid=520&lang=es](https://www.donostiakultura.eus/index.php?option=com_flexicontent&view=items&cid=77&id=28220&Itemid=520&lang=es)

Ikus-entzunezkoetan espezializatutako kultur etxea (Larrotxene, Intxaurren). Bere jarduna eta zerbitzuak hiru esparrutan garatzen ditu: prestakuntza (ikastaroak eta tailer trinkoak), ekoizpena (tailerretan edo haietatik kanpo egindako lanena) eta zabalkundea (sortutako materiala ezagutzera ematea). Editatzeko aretoak eta ikus-entzunezkoetako materiala ditu.

### LOCALES DANTE

Vitoria-Gasteiz, Araba.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Eszenikoak eta zuzenekoak.  
Webgunea: [https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?uid=trami\\_313&idioma=es](https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?uid=trami_313&idioma=es)

San Ignazio ikastetxe publiko ohiaren lehen solairuko entsegu-lokalak. Lau espazio independente antzerkiko kolektibo egonkorrek -amateurrak edo erdi profesionalak izan daitezke- erabili ditzaketenak, dantza edo antzerkiko ikuskizun berriak sortu nahi badituzte eta entseguak egiteko leku egokirik ez badute.

### GASTEIZKO ANTZOKI SAREA

Vitoria-Gasteiz, Araba.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Eszenikoak eta zuzenekoak.  
Webgunea: <https://www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?accion=teatro&accionWe001=ficha&enlaceRecomendado&idioma=es>

Gasteizko antzoki sarea lau espazio eszenikok eratzen dute. Espazio horien erabilpena eska daiteke profesionaleri zuzendutako alokairuaren modalitate bidez edota izaera amateurreko arte eszenikoetako talde eta kultur elkarteei lagatzeren bitartez. Beñat Etxepare antzokiko programazioarekin lotura duten izaera puntualeko egonaldiak nabarmentzen dira.

### ROMO KULTUR ETXEA

Getxo, Bizkaia.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Zeharkakoa.  
Webgunea: <https://www.getxo.eus/kaixo/ficha.asp?codficha=14&i=eu>

## 4. ESPARRU, ERAGILE ETA PROGRAMEN TIPOLOGIA

Udal titulartasuneko espazioa, hainbat eragile sozial eta kulturalen arteko topagune gisa pentsatuta dagoena. 5.500 m<sup>2</sup>ko azalera du guztira. Hor sartzen dira: balio anitzeko aretoa, entsegu-salak, grabazio- eta entzute-tresneriak musika-taldeentzat, auditoriuma edo erakusketa-aretoa.

### TALDEGUNE

Vitoria-Gasteiz, Araba.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Musika.  
Web: <https://www.taldegune.es/es/productos/Locales-y-salas/Locales-de-ensayo/>

Udal zentro honek intsonorizatutako entsegu-salak eta grabazio-estudioak ditu sorkuntzarako, entseguetarako edota beren ekoizpen musikalak grabatzeko tokia behar duten bakarleri edo taldeentzat.

### TORREKUA

Erreterria, Gipuzkoa.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Eskulangintza, zeharkakoa.  
Webgunea: <http://www.oarsoaldea.eus/es/oarsoaldea/area-de-prensa/notas-de-prensa/647-habian-emprendizaje-colaborativo>

Kultur eta sormen industrietara bideratutako lankidetzak ekintzailatza espazioa, bi proiektu sektorial barnean hartzen dituena: Habian! Teknologia Kreatiboa, IKTekin lotura duena, eta Habian! Fabrika Kreatiboa, eskulangintzarekin erlazionatua. Tailerrak, makineria eta aholkularitza eskaintzen ditu, betiere profesionalizazioa errazteko helburuarekin.

### 4.4. PERTSONA SORTZAILEEI KUDEAKETAN, AHOALKULARITZAN EDO LAGUN EGITEN TREBATZEKO ERAGILEAK EDO PROGRAMAK

Ezaugarri nagusi dute arte- edo sormen-adierazpenarekin zuzenean lotuta ez dauden gaikuntza- eta laguntza-programak garatzen dituztela, hau da, profesionalizazioarekin eta jarduera orokorrarekin (eskaintza, eskaria, kudeaketa, finantzaketa) eta/edo karrera profesionalaren kudeaketarekin zerikusia dutenak.

4.6 apartatuko «Ordezkapen kolektiboko erakundeak» puntuan zerrendaturik agertzen diren sektoreko elkarteetatik ere antolatzen dira jarduera horietako asko.

### ASMOZ

Usurbil, Gipuzkoa (on-lineko zerbitzua).

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Zeharkakoa.  
Webgunea: <https://asmoz.org>

Profesionaltasun aitortuko pertsonen tutoretzapean, on-lineko ikastaroak ematen eta garatzen dituen erakundea. Prestakuntza-eskaintza kultura, gizarte eta hezkuntza esparruetan zentratzen da. KSI sektorea modernizatzen eta profesionalizatzen laguntzen duten prestakuntza-ekintzak bultzatzen dituzte eta sektorearen eta azpisektoreen barruan sareak sortzea eta integratzea bilatzen.

### BIME PRO

Barakaldo, Bizkaia.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Musika.  
Webgunea: <http://musikabulegoa.eus>

Topaketa profesional bat nazioartean negozio-aukera berriak sortzeko xedearekin. Estatu mailako musika-industriaren topagune bat; horrez gainera, zubi-eginkizuna betetzen du Europa eta Latinoamerikako sormen-industrietako profesionalekin, kultur trukea sustatzen baitu talentua eta ideia berriak garatzeko.

## 4. ESPARRU, ERAGILE ETA PROGRAMEN TIPOLOGIA

### EUROPA CREATIVA DESK MEDIA EUSKADI

Euskadi.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Ikus-entzunezkoa; zeharkakoa.

Webgunea: <http://www.europacreativaeuskadi.eu>

Informazio-bulego hau Europa Creativak Europa osoan dituen 40 Desk baino gehiagoz osatutako sarearen parte da. Helburua Euskadiko ikus-entzunezkoen industriako profesionalen informazioa eta aholkularitza ematea da, ikus-entzunezkoen industria sostengatzeko Europa mailako laguntza-sistemara heltzen laguntzeko. Neurri txikiagoan, eta Madrilgo bulegoarekin lankidetzan estuan, Kultura azpiprogramari lotutako sostengua eta aholkularitza ere ematen ditu.

### EUSKAL HERRIKO MUSIKA BULEGOA

Vitoria-Gasteiz, Araba.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Musika.

Webgunea: <http://musikabulegoa.eus>

Sektoreko lankidetzaren proiektu bat musika-jarduera sustatu eta hobetzeko. Bere helburuen artean daude sektoreko zerbitzuen topagune bat eraikitzea, kalitatezko irudia proiektatzea eta tresna baliagarri izatea interes orokorreko ekintza eta proiektuen garapena ahalbidetzeko. Ekintzak: prestakuntza, sektoreko eztabaida, bitartekaritza eta ikus-entzuleak, laguntza-politza, sustapena.

### EKKI - EUSKAL KULTURGILEEN

KIDEGOA

Bilbo, Bizkaia.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Zeharkakoa.

Webgunea: <https://www.ekki.eus>

Bere kideen, sortzaileen edo eskubideen titular direnen jabetza intelektualeko eskubideak kudeatzeko erakundea; obren erabilera egileek nahi bezala gauza dadin arduratzen dira eta, kasua hala denean, dagokion tarifa kobratzeaz.

### KBULEGOA

Donostia, Gipuzkoa.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Zeharkakoa.

Webgunea: <https://www.gipuzkoa.eus/es/web/kultura/gestiones/k-bulegoa>

Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako zerbitzua. Kultura sektorean lan egiten duten pertsona, talde eta erakundeei -amateurrak edo profesionalak izan daitezke- zuzendutako informazio eta laguntzarako bulegoa. Kultur testuinguruko beharizanei erantzuten diete, eta informazioa eta aholkularitza ematen dute izapideen kudeaketan, sorkuntza-prozesuetan eta sektorea bistaratzeko zereginetan.

### KREA BIDASOA

Irun, Gipuzkoa.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Zeharkakoa.

Webgunea: <https://www.bidasoa-activa.com/es/areas-de-actuacion/creacion-de-empresas-y-emprendizaje/krea-bidasoa-emprendizaje-innovacion-y-creatividad>

Berrikuntza, sormena eta ekintzailtza bultzatzeko azoka, hainbat helbururekin: esperientziak trukatzeko, harremanak egiteko, lankidetzarako aukerak identifikatzeko eta arrakasta-kasuak ezagutzeko merkataritzan eta enpresan.

### KSI BERRITZAILE

Euskadi.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Zeharkakoa.

Webgunea: <https://www.euskadi.eus/informacion/ksi-berritzaile-2019/web01-a2kulind/es/>

Kultura eta sormen industriaren berrikuntzarako programa da, Eusko Jaurlaritzak sustatua, proiektu berrietarako aukera-espazioak sortu eta garatzeko helburuarekin, hiru jarduketara ardatzetan: berrikuntza teknologikoa, antolakuntza-eredua berritzea eta enpresen gaikuntza finantzarioa. 2019an, KSlatea bultzatu da, nazioartekotzea sostengatzeko berariazko programa bat.

## 4. ESPARRU, ERAGILE ETA PROGRAMEN TIPOLOGIA

### KULTURARABA BULEGOA

Araba.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa):  
Zeharkakoa. Webgunea: <https://www.kulturaraba.eus/-/kulturaraba-bulegoa-la-oficina-de-quienes-promueven-cultura-abre-de-nuevo-sus-puertas-en-siervas-de-jesus-5>

Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak bultzatutako zerbitzua, kultur erakundeei eta profesional autonomoei zuzenduta dagoena. Informazioa eskaintzen du, kultur eta sormen proiektuen garapenarekin eta kudeaketarekin zerikusia duten dirulaguntza, deialdi eta beste gai batzuei buruz, bai eta eguneroko jardunarekin lotura duten gaiei buruzkoa ere; gainera, kultur proiektuen garapenean eta sektorea dinamizatzen laguntzen dute.

### ARABAKO KULTUR ETA SORMEN ERAGILEENTZAKO PRESTAKUNTZA PROGRAMA

Araba.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa):  
Zeharkakoa.  
Webgunea: <https://www.kulturaraba.eus/-/trans-foko-2019-programa-formativo-para-agentes-culturales-y-creativos-de-alava>

Arabako Foru Aldundiak eta Vitoria-Gasteizko Udalak bultzatutako prestakuntza-programa, kultura eta sormen sektoreetako profesionaleri edo profesionalizatzeko prozesuan daudeneri zuzendua. Programak helburu bikoitza du: kultur proiektu edo erakunde profesional bat abian jartzeko orduan ezinbestekoak diren edukiak lantzea, eta zenbait forotan aurkezteko dossier bat prestatzen parte hartuko duten pertsoneri sostengua ematea.

### UROLA KOSTA ESKUALDE SORTZAILEA

Zarautz, Gipuzkoa.

Arreta-sektorea (lehentasunezkoa): Zeharkakoa.  
Webgunea: <http://agentzia.urolakosta.eus/es/urola-kosta-creativa>

Kultura eta Sormen Industrien inguruko eskualde-programa, hainbat egintza barnean hartzen dituena: kultura eta sormen sektorerari zuzendutako plataforma digitala, sektorean profesionalizatzeko prestakuntza, sektoreko mahaien sorkuntza, eta aholkularitza- eta informazio-programa.

## 4. ESPARRU, ERAGILE ETA PROGRAMEN TIPOLOGIA

### 4.5. SORKUNTZA SOSTENGATZEKO LAGUNTZA ETA DIRULAGUNTZA PUBLIKOAK EUSKADIN

Laguntza publikoko deialdien zerrenda. Batetik, hainbat arte eta kultur adierazpenetako sortzaileak zuzenean finantzatzen dituztenak daude; eta, bestetik, sorkuntza sostengatu eta bultzatzeko egiturak eta programak finantzatzen dituztenak.

ADMINISTRAZIOA	LAGUNTZA	SEKTOREA
Eusko Jaurlaritza	<a href="#">Dirulaguntzak kultur sorkuntzarako: ipuin eta eleberrri laburren sorkuntza euskaraz</a>	Literatura
Eusko Jaurlaritza	<a href="#">Dirulaguntzak kultur sorkuntzarako: musika konposizioa</a>	Musika
Eusko Jaurlaritza	<a href="#">Dirulaguntzak kultur sorkuntzarako: gazteei zuzendutako literatura-testuen sorkuntza euskaraz</a>	Literatura
Eusko Jaurlaritza	<a href="#">Dirulaguntzak Arte Plastikoen eta Ikusmen-arten eremuan jarduerak sustatzeko eta garatzeko. Modalitatea: SORKUNTZA-PRODUKZIOA</a>	Arte plastikoak / ikusmen-arteak
Eusko Jaurlaritza	<a href="#">Dirulaguntzak sorkuntza grafikorako: album ilustratuak</a>	Diseinua
Eusko Jaurlaritza	<a href="#">Dirulaguntzak sorkuntza grafikorako: komikiak eta eleberrri grafikoak</a>	Diseinua
Eusko Jaurlaritza	<a href="#">Dirulaguntzak produkzio eszenikorako: Produksioak I eta banaketa</a>	Eszenikoak eta zuzenekoak.
Eusko Jaurlaritza	<a href="#">Dirulaguntzak produkzio eszenikorako: Produksioak II eta banaketa</a>	Eszenikoak eta zuzenekoak.
Eusko Jaurlaritza	<a href="#">Dirulaguntzak produkzio eszenikorako: Hitzartutako zirkuitua duten proiektuak</a>	Eszenikoak eta zuzenekoak.
Eusko Jaurlaritza	<a href="#">Dirulaguntzak produkzio eszenikorako: Bi urtean behingo jarduera</a>	Eszenikoak eta zuzenekoak.
Eusko Jaurlaritza	<a href="#">Dirulaguntzak arte eszenikoak sustatzera bideratutako programetarako. Arte eszenikoak sustatzeko proiektuak</a>	Eszenikoak eta zuzenekoak.
Eusko Jaurlaritza	<a href="#">Dirulaguntzak arte eszenikoak sustatzera bideratutako programetarako. Antzerkiko profesionalen prestakuntza integrala</a>	Eszenikoak eta zuzenekoak.
Eusko Jaurlaritza	<a href="#">Dirulaguntzak arte eszenikoak sustatzera bideratutako programetarako. Arte eszenikoetako profesionalen prestakuntza iraunkorra</a>	Eszenikoak eta zuzenekoak.

## 4. ESPARRU, ERAGILE ETA PROGRAMEN TIPOLOGIA

ADMINISTRAZIOA	LAGUNTZA	SEKTOREA
Eusko Jaurlaritza	<a href="#">Dirulaguntzak dantza-jardueretarako: Dantza lanak I</a>	Eszenikoak eta zuzenekoak.
Eusko Jaurlaritza	<a href="#">Dirulaguntzak dantza-jardueretarako: Dantza Ekoizpena II</a>	Eszenikoak eta zuzenekoak.
Eusko Jaurlaritza	<a href="#">Dirulaguntzak arte eszenikoak sustatzera bideratutako programetarako. Egoitza proiektuak EAEko antzokietan</a>	Eszenikoak eta zuzenekoak.
Eusko Jaurlaritza	<a href="#">Dirulaguntzak kultur sorkuntzarako: Koreografia sorkuntza</a>	Eszenikoak eta zuzenekoak.
Eusko Jaurlaritza	<a href="#">Dirulaguntzak kultur sorkuntzarako: antzerkirako testuak</a>	Eszenikoak eta zuzenekoak.
Eusko Jaurlaritza	<a href="#">Dirulaguntzak kultur sorkuntzarako: Ikertu, proiektuak eta prototipoak alde aurretik diseinatzera bideratutako sormen-prozesuak</a>	Zeharkakoa
Eusko Jaurlaritza	<a href="#">Dirulaguntzak sormen-praktikak sostengatzen dituzten kulturgune independenteetarako (Sorgune)</a>	Zeharkakoa
Eusko Jaurlaritza	<a href="#">Dirulaguntzak bitartekaritza eta berrikuntza kultural eta sozialeko proiektuetarako (BITARTEZ)</a>	Zeharkakoa
Eusko Jaurlaritza	<a href="#">Kultur sorkuntza: zinemarako gidoiak Ikus-entzunezkoen sektorean(2018)</a>	Arte bisualak / zinema
DGFA	<a href="#">LABORE BEKAK artistentzat, Gipuzkoako museoetan garatzeko site specific proiektuak sortzeko</a>	Zeharkakoa
GFA	<a href="#">Meta!</a>	Zeharkakoa
BFA	<a href="#">Ertibil-Bizkaia</a>	Arte plastikoak / Ikusmen-arteak
BFA	<a href="#">Arte-sormenerako laguntzak</a>	Arte plastikoak / Ikusmen-arteak
Etxepare	<a href="#">Dirulaguntzak euskal sortzaileen mugikortasuna sustatzeko: antzerkia</a>	Eszenikoak eta zuzenekoak.
Etxepare	<a href="#">Dirulaguntzak euskal sortzaileen mugikortasuna sustatzeko: musika</a>	Musika
Etxepare	<a href="#">Dirulaguntzak euskal sortzaileen mugikortasuna sustatzeko: dantza</a>	Eszenikoak eta zuzenekoak.
Etxepare	<a href="#">Dirulaguntzak euskal sortzaileen mugikortasuna sustatzeko: arte plastikoak eta ikusmen-arteak</a>	Arte plastikoak / ikusmen-arteak
Vitoria-Gasteizko Udala	<a href="#">Gazte Sortzaileak</a>	Zeharkakoa
Bilboko udala	<a href="#">Ideiak Martxan</a>	Zeharkakoa
Bilboko udala	<a href="#">Dirulaguntzak sormenaren industriarekin -izan ditzakeen aplikazio-esparru guztietan- lotura duten jarduera ekonomikoen sektore berriak indartzeko</a>	Zeharkakoa

28 Nota: Algunas de las referencias corresponden a 2018 y otras a 2019, dependiendo del estado de la convocatoria en el momento de elaboración de esta tabla.

## 4. ESPARRU, ERAGILE ETA PROGRAMEN TIPOLOGIA

### 4.6. ESPARRU OSAGARRIAK

Sorkuntza sostengatzeko sistemaren ulermen holistikoagoa errazteko xedez, zenbait esparru sartu dira, txosten honetarako definitutako kontzeptu-markotik kanpora geratu arren, ez baitute foku nagusia sorkuntzaren zuzeneko sostengua (horiek kontuan hartzeak nahasarazi egin lezake azterlanaren espiritua), garrantzi handia dute-eta sistema, oro har, elikatu eta dibertsifikatzeko, sistema ulertuta barnerlazioz jositako errealitate konplexu gisa. Esparru horiek zentratuago daude balio-kateko beste katebegi batzuetan: prestakuntza, erakusketa, zabalkundea... edo eskaintza eta eskaria sofistikatzen laguntzen duten zerbitzuak eskaintzen dituzte.

Esparru osagarri horietako bakoitzaren aurkezpen labur bat egiteaz gainera, zenbait eragile zerrendatu dira, ez asko. Argigarriak

izan daitezkeen adibide zehatzen bitartez, tipologia bakoitza ulertzen laguntzea beste asmorik ez dugu izan. Hauek dira esparruak: Diziplina-prestakuntza, Erakusketa eta zabalkundea, Jaialdiak eta azokak, Ordezkapen kolektiboko erakundeak eta Zerbitzu espezializatuak.

#### Diziplina-prestakuntza

Trebetasun teknikoak, kontzeptualak edo adierazpen arlokoak, diziplina izaerakoak edo diziplinaz haraindikoak, bereganatzeari lotutako prestakuntzari egiten dio erreferentzia, bai alde zuzenetik, edota, bizitzan zehar, sormen-lana egiten den bitartean. Funtsezkoa da sorkuntza-prozesuan eta garrantzi handiko zeharkako eginkizuna du sorkuntzako ekosistema orotan.

Illo horretan, 4.1 eta 4.2 esparruetako eragileek eskaintzen dituzten programa eta jarduera asko prestakuntzaren arlokoak dira

eta, 4.4 esparruan, profesionalizaziora bideratutako gaikuntza, aholkularitza edo laguntza programak biltzen dira.

Baina, horrez gainera, puntu honetan aipatzekoak dira diziplina-prestakuntzari -hala arautua nola arautu gabea- estuago lotzen zaizkion zenbait eragile, prestakuntza hori, batez ere, fase erdi profesionaletan eta profesionaletan daudenengana bideratuta baitago. Eskoletatik hasi eta goi mailako zentro eta unibertsitateetara heldu arte, hastapen edo espezializazioko programetatik igarota. Hona hemen adibide batzuk: Artebi, musika, dantza, antzerki eta gidoigintza eskola; Avant Music Centre; BAI, Bizkaiko antzerki eskola; Centro Artesanal de Erandio; CFC, argazki garaikideko zentroa; Dantzerti, arte eszenikoen goi mailako eskola; EQZE, Elías Querejeta Zine Eskola; Vitoria-Gasteizko Arte eta Ofizio Eskola; EHUko Arkitekturako Goi Eskola Teknikoa; EHUko Arte Ederretako Fakultatea; INEDI, moda diseinatze eskola;



## 4. ESPARRU, ERAGILE ETA PROGRAMEN TIPOLOGIA

ID Arte, arte eta diseinuko goi mailako eskola; Jazz Cultural Theatre of Bilbao, jazzaren irakaskuntza, ikerketa eta zabalkundea; Kunsthal, goi mailako diseinu zentroa; Musikene, goi mailako musika ikastegia; Ortzai, antzerki-sorkuntza eta -ikerketa zentroa; Donostia eta Gasteizko Arte Eszenikoen Tailerra.

### **Erakusketa eta zabalkundea**

Sorkuntza, kasu gehienetan, estu-estu lotuta dago sortutakoa partekatzearekin. Kasu askotan, sorkuntza bera abian jartzeko motibazioa hura erakustea izaten da eta erakutsiko den testuingurura edo zabalduko den bitartekora egokitzen duten ezaugarriak izaten ditu.

Puntu honetan, sortzaileen erakusketa eta zabalkundea hasierako faseetan edo karreraren erdian sostengatzen dituzten eragileengan jartzen da arreta. Ildo horretan, ez dira kontuan hartu jada ezarritako

programazioak dituzten museo edo areto jeneralistak, baizik eta, batez ere (nahiz eta ez duten, ezinbestean, modu eksklusiboan zertan izan), gora datozen artisten lanak erakusten dituztenak. Oso eragile desberdinez osatutako panorama honetan, aipa ditzagun adibide gutxi batzuk: erakusketak, aurkezpenak eta beste zenbait jarduera antolatzen dituzten liburu-dendak, hala nola ANTI-, Garoa, Kaxilda, Louise Michel edo Zuloa; jarduera komertzialak, ekoizpenekoak, prestakuntzakoak eta erakusketak konbinatzen dituzten espazioak, esate baterako, Hemen, La Taller edo Narata; agertzen ari diren artisten aldeko apustua egiten duten galeriak, adibidez, Carreras Múgica, GKO edo SC Gallery; kontzertu-aretoak: Dabadaba, Jimmy Jazz, Kafe Antzokia, Muelle; argialetxeak: Astiberri, Belleza Infinita edo Sans Soleil; edo bitarteko alternatiboak, hala nola Aux, Cactus edo NOIZ.

### **Jaialdiak eta azokak**

Tamaina eta ibilbide desberdineko hainbat ekitaldi, sorkuntza-prozesuaren edo prozesu horien fruitu eta emaitzak publikoki aurkeztera bideratuta daudenak, bai eta sortzaileen, beste eragile profesional batzuen eta haien publikoaren artean elkartzeko, gogoetarako eta esperientziak trukatzeko espazioak sortzera ere.

Puntu honetan, jaialdi edo azoka edo feria hauei egingo diegu arreta: batez ere, gora datorren sorkuntza, auto-kudeatua edota esparru tematiko espezializatuak sostengatzen dituztenei. Ekitaldi horietako batzuk agertu dira jada aurreko esparruetako fitxa eta deskribapenen barruan (adib. Bideotik, Bilbo Hiria Pop Rock Lehiaketa, Gau Irekia, Inmersiones, Iturfest, Kaleartean, Prototipoak...).

Beste ekitaldi asko orain arte txosten honetan agertu ez diren eragile publiko edo pribatuek

## 4. ESPARRU, ERAGILE ETA PROGRAMEN TIPOLOGIA

antolatzen dituzte. Hauek dira erreferentzia gisa balio dezaketen batzuk: 150 gramos, arte eszenikoak merkatuan; ACT, agertzen ari den eszena; AKME, ikusmen-arteak eta kultura kritikoa; Ansible Fest, zientzia-fikzio feminista; BALA, auto-edizioa eta argitaletxe independenteak; Bilbao International Art&Fashion, gora datorren moda; Caóstica, film laburrak eta bideoklipak; Cine Invisible, zinema soziala; Getxoko Jazzeko Taldeen Lehiaketa; Ramiro Pinilla Eleberri Laburreko Lehiaketa; Dock of the bay, zine dokumental musikala; Feministaldia, kultura feminista; European School Zinema Fest, zine-eskolak; FIG Bilbao, grabatua eta paper gaineko artea; GetxoArte, arte plastikoak eta bisualak; GetxoPhoto, argazkia eta irudia; Irudika, ilustrazioari buruzko nazioarteko topaketa profesionala; Korner, kultura & fútbol; La Encartada, moda eta tradizio garaikidea; Loraldia, sorkuntza euskaraz; Mazoka, marrazkia eta ilustrazioa; MEM, musika eta arte esperimentalak; Mendi Film Festival,

mendi- eta abentura-zinema; Noche Scratxe, arte biziak; Ohete, auto-edizio grafikoa, soinuuzkoa eta ikus-entzunezkoa; Poetas en Mayo; Seriesland, serie digitalak; Serifalaris, diseinuaren kultura; Sortzaileen Gunea Durangoko Azokan; Spoken Word Bilbao, praktika poetikoak; Tracking Bilbao, sorkuntza Interneten; Urbanbat, kultura, hirigintza eta gizarte-berrikuntza; Zinebi, zine dokumentala eta laburra; Zarata Fest, musika arraroa edo kidekoak; edo Zinegoak, zinema eta arte eszeniko gaylesbotrans-ak.

### Ordezkapen kolektiboko erakundeak

Erakunde horiek garrantzizko zeregina dute sektoreko interesak eta eskaera profesionalak artikulatzeko orduan, estrategiak zehazterakoan, edo perspektiba eta ekinbide erkide batetik erronka eta aukerei ekiterakoan. Elkarte, sare edo kluster horietako askok beren artean loturak dituzten sortzaileak elkartzen dituzte, diziplinaren ikuspegitik edo beste interes zeharkako

batzuk direla eta. Jorratzen dituzten gaietako batzuek eta sortzen dituzten jarduerak honako hauekin dute zerikusia: lan- eta kontratu-markoak, harreman instituzionalak, genero-politikak, merkatuak irekitzea, sektoreko eta sektore arteko lankidetzak, publikoak sortzea, etab.

Hauek dira Euskadiko ordezkapen kolektiboko erakundeetako batzuk, txosten honen esparruan garrantzizkoak izan daitezkeenak: ADDE (dantzako profesionalak), AEE/EIE (idazleak), APIKA (ikus-entzunezkoen ekoizpena), ARBASO (eskulangintza), Artekale (kaleko arteak); BASQUEMODA (moda), Bertsozale Elkarte (bertsolaritza), COAVN (arkitektura), EHAZE (arte eszenikoak), EHBE (bertsolaritza), EIE (euskal idazleak) EIDE (diseinuko profesionalak), EIZIE (euskal itzultzaile eta interpreteak), Eiken (ikus-entzunezkoak eta eduki digitalak), EPE/APV (zinema ekoizpena), Eskena (ekoizpen eszenikoa duten enpresak); Euskal Irudigileak

## 4. ESPARRU, ERAGILE ETA PROGRAMEN TIPOLOGIA

(irudiztatzea), Gidoigile (gidoia); Gizarte (gizarte eraldaketarako hezkuntza artistikoa), Ibaia (ikus-entzunezko ekoizpen independentea), KARRASKAN (kulturaren berrikuntza eta berrikuntzaren kultura); MUSIKARI (musikako profesionalak) eta A Plataforma (emakumeak normaltasunez sartzea artearen sisteman).

### Zerbitzu espezializatuak

Eragile hauek zerbitzu espezializatuak eskaintzen dituzte, sorkuntza-prozesua eta/edo hura gauzatzeko modua planifikatzera bideratuak. Eskaintza horrek hartzaile ditu, sorkuntza sostengatzeko sistema osatzen duten eragileak ez ezik, eragile sortzaileak eurak ere, sorkuntza-prozesuaren -eta haren emaitzen- kualifikazio handiagoa segurtatzeko helburuarekin.

Askotariko zerbitzuen artean sartzen dira honako hauek: administrazio, finantzaketa edo jabetza intelektualeko aholkularitzak,

hala nola Ainara Legardon, Cola de Perro edo Doos Colectivo; prozesuen plangintza, diseinua, komunikazioa, sistematizazioa eta laguntza, adibidez, c2+i, ColaBoraBora, Teklak edo Tipi; sorkuntzen ekoizpen materialarekin lotura duten soluzioak, hala nola Alfa Arte, Arquimaña, Arteklab, Estudios Durero, Eskenitek, Fco. Javier Larreina, Material Connexion edo Sonora; bitartekaritza artistikoa eta kulturala, esate baterako Artaziak, Maushaus edo Ikertze; edo kudeaketa kulturala eta idazkaritza teknikoa, adibidez, Emun, K6, Kualitate, Kultiba edo Xabide.

## 5. ZENBAIT ONDORIO

Azterlan hau, izatez, Sorkuntza Sostengatzeko Euskal Sistemaren egungo konfigurazioa deskribatzen duen lehen fasea da, hain zuzen, zer motatako eragileek osatzen duten eta zer eginkizun eta zerbitzu ematen ari diren. Horretarako, lehenbizi, kontzeptu-esparru bat ezarri da azterketaren xedea mugatzeko, eta zerrenda arrazoitu bat egin da, inola ere ez ahitzailea, non, zein bere rolaekin, sorkuntzaren ekosisteman presente dauden eragile motak islatu nahi izan diren.

Azterlan hau amaitzeko, zenbait ondorio partekatzen dira, txostenaren xede izan gabe ere, erreferentzia gisa balio dezaten ikerlanaren bigarren fase baterako, analitikoagoa eta proposagileagoa. Ondorio horiek dira:

- **Gutxi planifikatutako sistema.** Hementxe datza txosten hau egiteko motibo nagusia. Sistema, plangintza baten ondorio gisa garatu ordez, ekimen eta erreakzio modura garatzen da, askotan

eragile beraien bulkada indibidualetatik abiatuta, egintza politiko puntaletatik edota eskaera zehatzak aurkezten dituzten dirulaguntza programetatik. Hori dela eta, teilakatzek eta efizientzia-erak gertatzen dira, hala diziplina beraien dagokienez, nola balio-katearen eta/edo lurralde-estaldura terminoetan. Noizbait gogoeta egin beharko da zer komeni den: dibertsifikazio kuantitatiboko politika bat garatzea; trakzio-ahalmen handiagoko erreferentziazko egitura batzuk finkatu eta egitura horiei sorkuntza sostengatzeko ahalmen handiagoa ematea –kalitate terminoetan–; edo banatuaren eta zentralizatuaren arteko erdibide orekatu bat bilatzea, hori bai, eraginkorra eta iraunkorra izango dena.

- **Ehundura publiko eskasa.** Sistema instituzionala ez da nahikoa trakzio-ahalmena gauzatzeko eta une honetan dagoen sortzaile profesionalak

eraturako masa kritikoa artatzeko eta balioztatzeko. Neurri handi batean, erakunde publikoak zentratuta daude beren programa- eta zerbitzu-eskaintzaren garapenean, eta ez horrenbeste eragile publikoekin eta tokiko eragile pribatuekin elkarlanean jarduten, eskaintza hori modu bateratuan edo koordinatuan garatzeko, elkarren sostengurako erantzukidetasun-sareak sortuta, eta ekosistemari bere osoan eusten lagunduta. Salbuespenak salbuespen, erakunde publiko horietako gehienek noizean behingo programak edo ekintzak eskaintzen dituzte, sortzaile kopuru oso murriztutara iritsi daitezkeenak. Gainera, haien sostengu-eskaintza, kasu gehienetan, sorkuntzaren lehen urteetara mugatzen da, eta hutsune garrantzitsua dago, aldiz, karrera profesionalak mantentzeko sostenguei dagokienez.

## 5. ZENBAIT ONDORIO

- **Ehun pribatu ezegonkorra.** Eragile pribatuen abaniko zabal eta askotarikoa dugu begien aurrean, eta eragile horietako gehienak txikiak edo oso txikiak dira, hauskorrak, baldintza prekarioetan mugitzen dira, kolokan daude, sostengu edo dirulaguntza publikoen mende: horrek ziurgabetasun handia ematen dio eragile bakoitzari, bai eta ezegonkortasuna sistema osoari ere. Gainera, ezegonkortasun- eta prekaritate-egoera iraunkor hori dela eta -artikulazio kolektibo eskasegia gehitzen zaio horri-, askotan, eragile horietako asko, dramatikoa bada ere, askoz gehiago kezkatu behar dute estrukturalki bizirik irauteaz, sorkuntzaren sostenguan eragile gisa jokatu behar luketen rolaz baino.
- **Lankidetzaren publiko-sozialetik sortutako eragile tipologia berri bat.** Nahiz eta, neurri handi batean, ez diren azterlan honetan agertzen, gehienbat,

sorkuntzaren zuzeneko sostengura bideratuak ez daudelako (Azpeitiko Sanagustin Kulturgunea edo Bilboko Sarean eta Wikitoki bezalako kasuetan salbu), garrantzitsua izan daiteke lurraldean (batez ere Gipuzkoan) zabaltzen ari den proiektu multzo bati arreta jartzea; izan ere, orain arte, «Sorkuntza fabrika» gisa hartzen zirenak indar handiz ari baitira hedatzen: herritarren, eragile kultural, sozial eta ekonomikoen eta administrazio publikoaren arteko lankidetzaren eta erantzukidetasunaren aldeko apustua egiten dute, kasu askotan gizarte-ekonomiarekin zerikusia duten kudeaketa mistoko edo komunitarioko ereduak erabilia. Gernikan Astrak izan duen ibilbide luzea edo Oñatin oraintxe eratzen ari den Eltzia adibide onak izan daitezke erreferentzia gisa hartzeko, aurrez aipatutakoez gainera.

- **Gutxi artikulatutako multzoa.** Sare egiturako artikulazio apala dago, eta eragileak gehiago funtzionatzen dute uharte gisa, uhartedi modura baino. Egia da hori ez dela berdin gertatzen sektore eta azpisektore guztietan; batzuek artikulazio maila handiagoa baitute, besteek baino. Gainera, existitzen diren harreman eta sareek, neurri handi batean, diziplinari lotutako ikuspegia dute, salbuespen batzuk kenduta. Eta, izaera egonkor edo formalagoa duten sareak alde batera utzita, ez dira oso ugariak lankidetzaren edo osagarritasun-erlazioak ere, baliabideak partekatzen dituztenak edota sorkuntza sostengatzeko sistema optimizatzen lagun lezaketen proiektu edo programa erkideak garatzen dituztenak.
- **Azpiegituren pisua.** Dauden azpiegiturak nahikoa ez diren arren,

## 5. ZENBAIT ONDORIO

azpiegituretan jartzen da oraindik arreta aurrekontuak erabaki behar direnean, baina baita, bestalde, iruditeria sinbolikoari dagokionez ere, uki daitekeena nagusitzen baita, dudarik gabe, ukiezinaren gainetik, edukitzailea edukiaren gainetik. Baina ekosistema orekatu batek denak behar ditu, bai erreferentziazko ekipamenduak eta bai beste hainbat baliabide eta zerbitzu, guztiek elkarrekin harremanetan jarduten.

- **Diziplinen eta sektoreen indarra.**

Hibridazioa eta praktiken zeharkakotasuna sorkuntzan gero eta handiagoa den arren, sostengu sistema oso lotuta dago oraindik tradiziozko kategoria eta diziplinetara. Gainera, faboratzen diren harremanek, batik bat, sektore barruan jartzen dute fokua (kultur sektore beraren barruan), sektoreen artean eta sektoreaz haraindi

baino areago (kulturaz kanpoko beste sektore batzuei dagokienez). Halako endogamia bat ikusten da sostengu-sisteman, edo irekitzeko ezintasun bat, pertsona sortzaileen (baita publikoen ere) tipologia berriei begira, eta horrek zaildu egin ditzake sistemaren bideragarritasuna eta eraberritzea.

- **Beharrianetik edo eskatzen delako?**

Beste esparru batzuetan bezala, sorkuntzaren sostenguan ere, dirulaguntza publikoen betebeharrak praktika jakin batzuk ugaltzea errazten dute, eta horrek baldintzatu egiten du, gutxi-asko, testuinguruaren garapena. Sorkuntzaren sostenguarekin zerikusi handia duen adibide bat egoitza edo egonaldi artistikoak antolatzeke betebeharra da, zeina Sorgune deialdi publikoaren markoan eskatzen baita. Hori dela eta, asko ari da ugaltzen sostengu tipologia hori, baina, era

berean, batzuen eta besteen arteko koordinaziorik gabe, eta baldintza prekarioetan kasu gehienetan, azpiegitura fisiko jakin batzuei lotuta, etab. Hori guztia, oso interesgarri izan badaiteke ere «egoitza» ereduaren lehen faseko testatze bat egiteko, ebaluatu egin beharko da, eta egoitzen zenbait alderdi (baldintzak, komunikazioa, aniztasuna eta osagarritasuna...) artikulatu.

- **Gabeziak inbertsioari eta finantzaketari dagokienez.**

Jarduera profesionalen garapena xede duen sorkuntza sostengatzeko sistema batek eredu berriak behar ditu inbertsioa eta finantzaketa dibertsifikatzeko: diru-fluxuak, laguntza publikoen aldi batekotasuna, eragileak eta inbertsio-eta itzulketa-moduak, etab. Gaur egun, Euskadin, ments ditugu finantzaketarako eragileak eta mekanismo eraginkor eta

## 5. ZENBAIT ONDORIO

espezifikoak, kultur sektorearen errealitatera egokituta daudenak –are gutxiago sormenaren esparrura–, ehunaren finkapen eta dibertsifikazio finantzarioa lortzeko.

- **Eskariaren kualifikazioa eta balio-pertzepzioa.** Beharrezkoa da sormena kanal eta publiko berrietara irekitzea eta iristea, eta horretarako estimulazioan, dibertsifikazioan eta kualifikazioan lan egin behar da, eta ez soilik eskaintza sortzaileari dagokionez, baita eskariaren arloan ere, «kulturaren balioa» deituaren fokua eta eragin-eremua zabalduz. Alderdi hori zaindu ezean, eraginkortasunik gabe ariko ginateke baliabideak inbertitzen gizarteak balio-ekarpenik ongi ikusten ez dion sektore baten garapenean; gainera, sektore hori gero eta prekarizatuago dago, laguntza publikoekiko mendekotasun esklusibora kondenatua, kontuan izanik gero eta

urriagoak direla, dagoen eragile kopuruarekin alderatuta.

- **Profesionalizatzeko zubia.** Sortzaileen prestakuntzaren eta pertsona horiek zirkuitu edo merkatu profesional batera iristearen arteko zubia ia beti izaten da banakakoa eta autodidakta. Salbuespen gutxi batzuk salbu –horietako batzuk txosten honetan islatzen dira–, ez da prozesu hori erraztuko duen laguntza, aholkularitza eta trebakuntza zerbitzurik eskaintzen, ez hasieran, eta ez karrera profesionalean zehar. Ez dago garapen profesionalizatuagoa ahalbidetzeko moduko marko edo erreferente nahikorik, ez soilik sorkuntzari dagokionez, baizik eta hari lotutako beste hainbat zereginetan: salmentalanak, komunikazioa, eskubideen kudeaketa, administrazioa, etab. Ez da existitzen etengabeko prestakuntzaren kulturarik sektorean, eta hortxe joka

lezakete garrantzi handiko papera elkarte profesionalek, erakunde publikoekin lankidetzan.

- **Oso nazioartekotze urriko ekoizpen sortzailea.** Indibidualki nazioarteko lotura sendoak dituzten eta sare eta zirkuituetan presentzia duten sortzaile gutxi batzuk, edo euskararekin lotuago dagoen sorkuntzaren sektorea salbuetsita, aurrean dugun errealitate gordina da sorkuntza sektorearen nazioartekotzea, oro har, oso eskasa dela. Eta hori erraztuko luketen sare edo programen artikulazioa hutsaren hurrengo da. Eta hori horrela da bai pertsona sortzaile beraien artean artikulaziorik ez dagoelako eta bai, sorkuntzari dagokionez, erakunde publiko edo erdi publikoen aldetik, nazioartekotzera orientaturiko neurri espezifikorik ez dagoelako, ez kultura beraren kasuan bereziki, ez eta jarduera

## 5. ZENBAIT ONDORIO

produktibo gisa hartuta ere (sorkuntza baita kultura- eta sormen-industrien oinarria, eta industria horiek aukerako sektoretzat hartzen dira RIS3 delakoaren barruan). Txosten hau egiten ari ginen bitartean, ekimen batzuk jarri dira abian Etxepare institututik, bai eta KSI Berritzaile programarekin lotura dutenak ere, nazioartekotzea indartzera edo merkatu sektorial espezifikotetan presentzia izatera bideratuak.

Ondorio horiek ikusita, azterlanaren bigarren fase batek, halakorik izatekotan, eragileen arteko harremanetan sakontzea eskatuko luke, agertzen ari dena eta jada antolatuta eta planifikatuta dagoena -baina ez nahitaez egonkorra- orekatzea ahalbidetuko duten politikak ezartzeari begira. Alde bakoitzaren analisi kualitatiboagoa egin beharko da, jakiteko zein eragilek -beren trakzio-, aglutinatze- edo birbanatze-ahalmena kontuan hartuta- beharko luketen laguntza

handiagoa sistemako nodo giltzarri gisa finkatzeko, azpiegitura bati lotuta egon edo ez, eta arlo publikoaren eta pribatuaren arteko oreka baloratuz, ekosistema erkide bat eratzearen. Jakin beharko da, baita ere, eragile horien inguruan nola kokatu agertzen ari diren praktikak edo ibilbide luzeko beste eragile batzuenak -baina, haien trakzio-ahalmena eta/edo eskaintza bakana ez dutenak-. Era berean, hau ere zehaztu beharko da: zer rol jokatu behar duten eragile publikoek beren politikekin eta baliabide, azpiegitura eta programekin.

Hitz gutxitan esanda, azterlan honetan proposatzen diren kontzeptu-markoa eta tipologiaren funtsa onartzen badira, beharrezkoa izango da, gero, loturak marraztea, estali gabeko edo gehiegi ordezkaturako esparruak erabakitzea eta bultzada-politika bat zehaztea, ekosistema orekatuaren kontzeptuan oinarrituta, ez bakarrik lurraldeari begira, herrialdearen

dimentsioa kontuan hartuta, baizik eta sektorialtasunean eta transektorialtasunean fokua jarri. Alegia, nola ezarri polinizazio gurutzatuko estrategiak oraingo eragileen artean, haiek sendotzen eta finkatzen laguntzeko eta kanpora irekitzea ahalbidetzeko.







KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜÍSTICA

**Eusko Jaurlaritza**ren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

K  
RR S  
K N

KULTURA BERRIKUNTZAN  
BERRIKUNTZAREN KULTURA  
INNOVACIÓN EN CULTURA  
CULTURA DE LA INNOVACIÓN  
KARRASKAN.ORG

COLABORA  
BORA

CONEXIONES  
improbables®